

GIPUZKOARAKO EUROPAR KOFINANTZAKETAREN MAPA

2018ko EKAINA

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas



**Europar Batasuna
Unión Europea**

**Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)**
"Una manera de hacer Europa"

**Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)**
"Europa egiteko modu bat"

Aurkibidea

SARRERA.....	4
EUOPAKO FINANTZAKETAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK: SUBSIDIARIOTASUNA ETA PROPORZIONALTASUNA	5
EUOPAKO ERAKUNDEEN MAPA	6
EUROPA 2020 ESTRATEGIA	8
URTE ANITZEKO FINANTZA ESPARRUA 2014-2020	9
EUROPA 2014-2020 PROGRAMAZIO BERRIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK	11
EUOPAKO FINANTZAKETAREN ONURADUN POTENTZIALAK	12
EUOPAKO FINANTZAKETA JASOTZEKO PROZEDURA.....	13
FINANTZAKETA TRESNAK	17
<i>Laguntza-programak eta zuzeneko kudeaketa-funtsak (diru-laguntzen bidezko finantzaketa).....</i>	17
HORIZON 2020	19
HORIZON 2020 – Zutabea: “ZIENTZIA BIKAINA”	20
HORIZON 2020 – Zutabea: “INDUSTRIA ARLOKO LIDERGOA”	21
HORIZON 2020 – Zutabea: “ERRONKA SOZIALAK”	22
EaSI. Enplegurako eta Berrikuntza Sozialerako Europako Programa 2014-2020 aldirako.....	26
COSME Enpresen eta ETE-en Lehiakortasunerako Programa, 2014-2020 aldirako	27
ERASMUS+. Hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari laguntzeko programa, 2014-2020	28
CREATIVE EUROPE, 2014-2020	29
GAZTEEN ENPLEGURAKO EKIMENA. Gazteentzako Berme Funtza, 2014-2020.....	30
EUROPA LOTZEA, 2014-2020	31
LIFE 2014-2020.....	32
GIZA ESKUBIDEAK, BERDINTASUNA ETA HERRITARRAK programa, 2014-2020	33
EUROPA HERRITARRENTZAT programa, 2014-2020	34
JUSTIZIA programa, 2014-2020.....	35
KONTSUMITZAILEAK programa 2014-2020	36
OSASUNA programa, 2014-2020	37
Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtza (GEEF), 2014-2020.....	38
Egoera Zailenean dauden Pertsonen Laguntzeko Europako Funtza, 2014-2020.....	39
Asilo, Migrazio eta Integrazioarako Europako Funtza, 2014-2020	40
Demokrazia eta Giza Eskubideetarako Finantza Tresna (DGEFT), 2014-2020	41
Garapenerako Lankidetzeta Finantzatzeko Tresna, 2014-2020	42
Auzo-politikarako Europako Tresna, 2014-2020.....	43
Urban Innovative Actions (UIA).	44
<i>Egiturazko funtsak eta Inbertsio-funtsak</i>	45
Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF), 2014-2020.....	46

EGEF, Lurraldeen arteko Lankidetza, 2014-2020	47
POCTEFA 2014-2020 (Mugaz gaindiko Lankidetzarako Programa).....	48
POCTEP 2014-2020 (Mugaz gaindiko Lankidetzarako Programa).....	49
Eremu Atlantikoa, 2014-2020 (Nazioz gaindiko Lankidetzarako Programa).....	50
SUDOE, 2014-2020 (Nazioz gaindiko Lankidetzarako Programa)	51
MED, 2014-2020 (Nazioz gaindiko Lankidetzarako Programa)	52
Eskualdeen arteko lankidetzarako programak eta EGEF sareak	53
INTERREG EUROPE (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa).....	54
INTERACT sarea (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa)	55
ESPON - European Observation Network for Territorial Development and Cohesion (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa)	56
URBACT III (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa).....	57
Europako Gizarte Funtsa (EGIF), 2014-2020.	58
Kohesio Funtsa (KF), 2014-2020	59
Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF), 2014-2020	60
Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsa (FEMP), 2014-2020.....	61
EUROPAKO FINANTZAKETA LORTZEKO BESTE TRESNA BATZUK	62
<i>Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsa (EFSI).....</i>	<i>62</i>
<i>Berrikuntzarako Lankidetzak Europan (European Innovation Partnerships, EIP, ingelesez).....</i>	<i>63</i>
<i>Programazio Bateratuko Ekimenak (JPIak)</i>	<i>64</i>
FINANTZAKETARAKO TRESNAK, GAIKA	65
<i>Gizarte-ekintza, migrazioa eta integrazioa</i>	<i>65</i>
<i>Berrikuntza eta lehiakortasuna enpresetan</i>	<i>66</i>
<i>Kultura, gazteria eta kirolak</i>	<i>67</i>
<i>Garraioa eta mugigarritasuna</i>	<i>68</i>
<i>Enplegua, prestakuntza eta hezkuntza.....</i>	<i>69</i>
<i>Energia eta ingurumena.....</i>	<i>70</i>
<i>I+G+b</i>	<i>71</i>
<i>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.....</i>	<i>72</i>
<i>Nekazaritza eta arrantza</i>	<i>73</i>
<i>Lankidetza hirugarren herrialdeekin</i>	<i>74</i>
<i>Osasun publikoa eta kontsumoa</i>	<i>75</i>
<i>Justizia eta barneko gaiak.....</i>	<i>76</i>
<i>Eskualde-politika.....</i>	<i>77</i>
BIBLIOGRAFIA	78

SARRERA

Dokumentu honen helburu nagusia da, laburtuta, Europako Batzordeak herritarren, enpresen, erakundeen eta Europako gainerako organismoen esku jartzen dituen finantzaketako eta kofinantzaketako tresnen ikuspegi orokorra biltzea.

Helburu horrekin, eta "ibilbide-orria" izateko asmoz, Europako finantzaketa ulertzeko kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenen deskribapen laburrekin hasiko dugu dokumentua: Europar Batasuneko organo nagusien zerrenda, Urte Anitzeko Finantza Esparrua, Batzordearen urteko aurrekontuak eta Europa 2020 Estrategia.

Horiekin batera, dokumentuak labur-labur biltzen ditu 2014-2020 Inbertsio Funtsen eta Egiturazko Funtsen programazio berriaren ezaugarri nagusiak; eta haien guztien gainetik administrazio eta finantza arloan sinplifikazioa lortzeko egindako esfortzua nabarmentzen du.

Finantzaketa-programa bakoitzerako, helburuen deskribapen bat eta laguntza-ildo nagusiak biltzen ditu. Informazio hori, gainera, webgune espezifikorako esteka batekin osatzen da, eta horren bidez, informazio gehiago eskura daiteke, edo are gehiago, behar izanez gero, finantzaketa-eskaera egin daiteke.

EUROPAKO FINANTZAKETAREN OINARRIZKO PRINTZIBIOAK: SUBSIDIARIOTASUNA ETA PROPORZIONALTASUNA

Europako finantzaketaren oinarrizko printzipioak **subsidiariotasuna** eta **proporzionaltasuna** dira. Printzipio horien aplikazio praktikoak berekin dakar EBk Europako balio erantsia duten jarduerak babesten dituela —hori finantzatzea ez dagokie kide diren Estatuetako administrazio publikoei— eta bere eskumen-eremuaren barruan soilik.

- **Subsidiariotasunaren printzipioak** EBren eta EBko herrialdeen artean partekatutako eskumeneren eremuetan egokienak diren esku-hartze maila zehaztu nahi du. Europa mailako, nazio mailako edo tokian tokiko ekintza bat izan daiteke. Edonola ere, EBk kasu bakarrean esku hartu ahal izango du: nazio mailan edo tokian-tokian haren ekintza EBko herrialdeena baino eraginkorragoa denean.
- **Proporzionaltasunaren printzipioaren** helburua da EBko erakundeek ekintzak muga jakin batzuen barruan ezartzea. Arau honen arabera, EBren ekintza Itunen helburuak lortzeko behar-beharrezkoa dena soilik izango da. Beste hitz batzuetan, ekintzaren edukia eta formak lortu nahi den helburuarekin proportzioan egon behar du.

EUROPAKO ERAKUNDEEN MAPA**Europar Batasuneko erakunde mailako Organo nagusiak**

INSTITUZIOAK	BABES ORGANISMOAK	FINANTZA ORGANISMOAK
Europako Batzordea	Europako Batzorde Ekonomiko eta Soziala	
Europako Parlamentua	Eskualdeen Batzordea	Europako Banku Zentrala
Europar Batasunaren Kontseilua	Europako Herriaren defendatzailea	Inbertsioen Europako Bankua
Europako Komunitateen Justizia Auzitegia	Europako Kontuen Auzitegia	Inbertsioaren Europako Funtza
	Agentziak	

- **Europako Batzordea (EB)** da Europar Batasuneko organo betearazlea eta legegilea. Legedia proposatzeaz, erabakiak aplikatzeaz, Batasunaren itunak defendatzeaz eta EBko egunerokotasunaz arduratzen da. Batzordeak gobernu-kabinete gisa jokatzeko du, batzordeko 38 kideekin. Kide den Estatu bakoitzeko ordezkari bat dago, nahiz eta kideek EB osoaren interesak ordezkatzeko betebeharra duten, eta ez jatorrizko herrialdearenak. 28etako bat Batzordeko presidentea da, Europako Kontseiluak proposatuta eta Europako Parlamentuak hautatuta. Kontseiluak izendatzen ditu Batzordeko 28 kideak, izendatutako presidentearen adostasunarekin. Azkenik, 28 kideek, gorputz bakarra balira bezala, Europako Parlamentuak onartzeko bozketa bat gairatzen behar dute. <http://ec.europa.eu>
- **Europako Parlamentua (EP)**. EPk Europako herritarren interesak ordezkatzeko; bost urtean behin bozka dezakete dagokien herrialdeko eurodiputatuak aukeratzeko, Europako alderdi politikoetan multzokatuta. EPk prozesu legegilean parte hartzen du eta dituen funtzioen artean daude printzipio demokratikoak errespetatzea eta politikak kontrolatzea. EPren lana Parlamentuko Batzordeen bidez kontrolatzen da; horietan lantzen dituzte gai espezifikoak. <http://www.europarl.europa.eu>
- **Europar Batasunaren Kontseilua (EBK)**. EBK-k kide diren Estatuaren interesak ordezkatzeko ditu eta hamar taldez osatuta dago. Talde horiek kide diren Estatuaren politiken arduradun diren ministroek osatzen dituzte. Herrialde bakoitzeko presidentek edo lehen ministroek osatutako EBKren osaketari Europako Kontseilua deitzen zaio, eta erabaki estrategikoenak hartzen ditu. <http://www.consilium.europa.eu>
- **Justizia Auzitegia**. Justizia Auzitegiak EBko legedia interpretatzen eta aplikatzen du kide diren herrialde guztietan modu berean aplikatzen dela bermatzeko, eta nazio mailako gobernuen eta Europako erakundeen arteko auziak ebazten ditu. Egoera jakin batzuetan, Auzitegiak jo dezakete EBko erakunderen batek eskubideak urratu dizkietela uste dute partikularrek, enpresek eta erakundeek ere. <http://curia.europa.eu/>
- **Europako Batzorde Ekonomiko eta Soziala (EBES)**. EBES hiru taldetan antolatutako gizarte zibilaren interesak ordezkatzeko dituen aholku-batzordea da: Enpresaburuak, langileak eta askotariko jarduerak (batez ere Hirugarren Sektorea). Europako politiken garapenean eragiten du, eta EBk edo EPk aginduta edo norberaren ekimenez gai zehatzen gaineko epaiak ematen ditu. <http://www.eesc.europa.eu>

- **Eskualdeen Batzordea (EEB).** EEB EBren aholku-batzordea da; kide diren hogeita zortzi Estatuetatik datozen tokiko eta eskualdeko ordezkari hautatuek osatzen dute. EEBren bidez, ordezkariak iritzia eman dezakete eskualde eta hirietan zuzenean eragiten duten EBko legeen inguruan. EEBk aukera ematen die eskualde eta hiriei formalki EBko legegintzan parte har dezaten, eta hala, eskualdeko eta tokiko erakundeen beharrak eta iritziak errespetatzea bermatzen da. <http://cor.europa.eu>
- **Europako Herriaren defendatzailea.** Europako Herriaren defendatzaileak EBko erakunde eta organismoen kudeaketa txarraren inguruko erreklamazioak ikertzen ditu. Erreklamazioak EBko edozein herritarrenak izan daitezke, edo kide den Estatu batean helbidea duten egoiliarrenak, enpresenak eta erakundeak. <http://www.ombudsman.europa.eu>
- **Europako Kontuen Auzitegia (EKA).** EBren kanpo-auditore independente gisa, EKAK Europako zergadunen interesak zaintzen ditu. EKAK gaitasun juridikorik ez duen arren, Europako Batzordeak EBren aurrekontuaren kudeaketa hobeto dezan laguntzen du eta Batasunaren finantzen berri ematen du. Funtzio nagusien artean, EBren sarrera eta gastuak auditatzen ditu, funtsen pertzepzioa, erabilera, errentagarritasuna eta kontabilitatea zuzenak direla egiaztatzeko. Era berean, EBko funtsak erabiltzen dituen edozein pertsona edo erakunde gainbegiratzen du, bereziki EBko erakundeetan, kide diren Estatuetan eta EBren laguntza jasotzen duten herrialdetan kontrol puntualak eginez. <http://www.eca.europa.eu>
- **Agentziak.** Agentziak Europar Batasuneko erakundeetatik independenteak diren entitate juridikoak dira, Batasunaren araudiaren arabera zeregin espezifikoak egiteko sortuta daude. Agentzia mota ugari daude: deszentralizatutako agentziak, Segurtasun eta Defentsa Politika Komuna egiteko agentziak, agentzia exekutiboak, EURATOMeko agentziak eta organismoak eta beste organismo batzuk. https://europa.eu/european-union/about-eu/agencies_es
- **Europako Banku Zentrala (EBZ).** EBZk euroa kudeatzen du eta EBko politika ekonomikoa eta moneta-politika formulatzen eta aplikatzen du. Euroguneko banku komertzialei mailegua emateko interes-tasak finkatzea da bere helburu nagusia, eta hala, monetaren eskaintza eta inflazioa kontrolatzen du. Euroguneko dibisen erreserbak ere kudeatzen ditu, baita dibisen salerosketa ere, truke-tasen oreka mantentzeko. <https://www.ecb.europa.eu>
- **Inbertsioen Europako Bankua (IEB).** IEB EBko herrialde guztien titulartasunekoa da. Helburu hauek ditu: Europako enplegu- eta hazkunde-potentziala sustatzea, klima-aldaketa arintzeko neurriak babestea eta EBren politikak beste herrialde batzuetan indartzea. IEBk kapital-merkatuetatik jasotzen du finantzaketa eta maileguak ematen ditu baldintza onetan EBren helburuetan laguntzen duten proiektuetarako. <http://www.eib.europa.eu/>
- **Inbertsioen Europako Funtsa (IEF).** IEF enpresa txiki eta ertainei (ETE) laguntza, arrisku-kapitaleko funtsak eta bermeak eskaintzen dizkien Europar Batasuneko (EB) organoa da. Egoitza nagusia Luxenburgon du, eta bulegoak, berriz, Bruselan (Belgika) eta Madrilen (Espainia). Funtsak Batasuneko kide diren Estatuetan jarduten du, baita hautagai diren eta atxikitze-negozazioak amaitu dituzten herrialdeetan ere. Elkarrekin, IEBk eta IEFk, "IEB talde" izenekoa osatzen dute. <http://www.eif.org/>

EUROPA 2020 ESTRATEGIA

Europar Batzordeak eta kide diren Estatuak 2010ean **“hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea”** bermatzeko hartutako ibilbide-orrria da Europa 2020 Estrategia.

- **Hazkunde adimentsua.** Ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea. Hezkuntza-sistema hobea, ikerketa gehiago, IKTen erabilera gehiago eta hobea.
- **Hazkunde iraunkorra.** Baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko dituen ekonomia sustatzea, berdeagoa eta lehiakoragoa. Baliabideen erabilera eraginkorragoa, ekologikoagoa eta lehiakoragoa.
- **Hazkunde integratzailea.** Enplegu maila altua duen ekonomia sustatzea, kohesio soziala eta lurralde mailakoa izango duena. Enplegu gehiago eta hobek, inbertsio gehiago gaitasun berrietan eta prestakuntzan, lan-merkatuaren modernazioa.
- Eta hori guztia, **gobernantza ekonomiko egokia eta koordinatua eginez.**

Gainera, Europa 2020 Estrategiak Europar Batasunak 2020an lortu beharko lituzkeen helburu zehatzak finkatzen ditu:

Europa 2020 Estrategia


Eremuak	Helburua
Enplegua	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegua 20 eta 64 urte arteko pertsonen % 75entzat.
I+G	<ul style="list-style-type: none"> • EBko BPGd-ren % 3ko inbertsioa I+G-n
Klima-aldaketa eta iraunkortasun energetikoa	<ul style="list-style-type: none"> • negutegi-efektuko gasen igorpenak 1990ekoak baino % 20 txikiagoak izatea (edo % 30 txikiagoak, baldintza egokiak izanez gero). • % 20 energia berriztagarriak. • Eraginkortasun energetikoa % 20 handitzea.
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola-uzte goiztiarreko tasak % 10etik beherakoak izatea. • 30 eta 34 urte arteko pertsonen % 40k gutxienez hirugarren mailako ikasketak osatuta izan behar ditu
Txirotasunaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borroka egitea	<ul style="list-style-type: none"> • gutxienez 20 milioi lagun gutxiago izatea txirotasun-arriskuan edo gizarte-bazterkeriaren arriskuan.

URTE ANITZEKO FINANTZA ESPARRUA 2014-2020

Europar Batasuneko 2014-2020 **Urte Anitzeko Finantza Esparrua** da Europar Batasunak zazpi urtean behin politika ekonomikoak garatzeko erabiltzen duen finantza-programa. Eta hori maila publikoan nahiz pribatuan sektoreei finantza-babesa eskaintzen dieten zenbait programa eta funtsen bidez egiten du.

Urte Anitzeko Finantza Esparrua ez da Europar Batasunaren aurrekontua; aurrekontu-plangintza egiteko tresna bat eta lehen tasun politikoei adierazpena da. Izan ere, bertan zehazten da zenbat eta zer sektoretan inbertituko duen Europar Batasunak zazpi urtetan zehar.

EBren 2015eko aurrekontua, Urte Anitzeko Finantza Esparruaren errubrikaren arabera



(2016ko tarteko berrikusketaren ondoren onartutako aurrekontua)

(EUR million - current prices)

COMMITMENT APPROPRIATIONS	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Total 2014-20
1. Smart and Inclusive Growth	52 756	77 986	69 304	73 512	76 420	79 924	83 661	513 563
1a: Competitiveness for growth and jobs	16 560	17 666	18 467	19 925	21 239	23 082	25 191	142 130
1b: Economic, social and territorial cohesion	36 196	60 320	50 837	53 587	55 181	56 842	58 470	371 433
2. Sustainable Growth: Natural Resources	49 857	64 692	64 262	60 191	60 267	60 344	60 421	420 034
of which: Market related expenditure and direct payments	43 779	44 190	43 951	44 146	44 163	44 241	44 264	308 734
3. Security and citizenship	1 737	2 456	2 546	2 578	2 656	2 801	2 951	17 725
4. Global Europe	8 335	8 749	9 143	9 432	9 825	10 268	10 510	66 262
5. Administration	8 721	9 076	9 483	9 918	10 346	10 786	11 254	69 584
of which: Administrative expenditure of the institutions	7 056	7 351	7 679	8 007	8 360	8 700	9 071	56 224
6. Compensations	29	0	0	0	0	0	0	29
TOTAL COMMITMENT APPROPRIATIONS	121 435	162 959	154 738	155 631	159 514	164 123	168 797	1 087 197
as a percentage of GNI	0.90%	1.17%	1.05%	1.04%	1.04%	1.04%	1.03%	1.04%
TOTAL PAYMENT APPROPRIATIONS	135 762	140 719	144 685	142 906	149 713	154 286	157 358	1 025 429
as a percentage of GNI	1.01%	1.02%	0.98%	0.95%	0.97%	0.97%	0.96%	0.98%
Margin available	0.22%	0.21%	0.25%	0.28%	0.26%	0.26%	0.27%	0.25%
Own Resources Ceiling as a percentage of GNI	1.23%	1.23%	1.23%	1.23%	1.23%	1.23%	1.23%	1.23%

Testuinguru horretan, eta Urte Anitzeko Finantza Esparruan ezarritako lehen tasun eta helburuak kontuan hartuta, Batzordeak, Kontseiluak eta Parlamentuak elkarrekin zehazten dute Europar Batasuneko **Urteko Finantza Aurrekontua**. Batzordeak proiektu bat egiten du eta Kontseiluari eta

Parlamentuari aurkezten die. Horiek aldatu egin dezakete, eta adostasunik ez badute lortzen, konpromisoa lortzen saiatzen dira.

Europar Batasuneko aurrekontuak beti orekatua izan behar du. Hori dela eta, inoiz ez du defizitik, inoiz ez du zorrik metatzen eta sartzen zaiona soilik gastatzen du.

Europako Batzordea da aurrekontua aplikatzearen azken erantzulea. Praktikan, EBko funtsen gehiengoa (% 80 inguru) kide diren Estatuekin batera gastatzen da, kudeaketa partekatua deitzen zaionaren bidez. Mekanismo horren arabera, kide diren Estatuetakoa administrazioek (esaterako, eskualde-garapenerako ministerioak) kudeatzen dute gastua Batzordeak berak kudeatu ordez, haren gainbegiradapean.

Aurrekontuari dagokion ekitaldia pasatutakoan, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinarazten dio zer gastu egin den. Europako Kontseiluak eta Parlamentuak EBko aurrekontuaren aplikazioa ebaluatzen dute, urtero Kontuen Auzitegiak egiten duen txostena oinarri hartuta. Jarraian, Parlamentuak onartzen du edo ez ekitaldi horretan Batzordeak egindako aurrekontuaren kudeaketa eta aurrekontuaren itxiera.

Gastu hori ere Europako Kontuen Auzitegiak gainbegiratzen du. Baldin badagokio, Europako Parlamentuak onarpena ematen du.

Batasunaren aurrekontua nagusiki baliabide propioekin finantzatzen da (% 99). Urteko sarrerek guztiz estali behar dituzte urteko gastuak. Kontseiluak zehazten ditu aurrekontuko sarrerak, Parlamentuari kontsulta egin ondoren. Baliabide propioen sistemari buruzko erabakia kide diren Estatuak berretsi behar dute.

Baliabide propioak hiru motatakoak dira:

- **Baliabide propio tradizionalak:** Funtsean EBn inportazioen gaineko aduana-eskubideetatik eta azukrearen kotizazioetatik datoz. Kide diren Estatuak zenbatekoen ehuneko bat ezartzen dute diru-bilketaren kostuengatik.
- **Balio erantsiaren gaineko zergetan (BEZ) oinarritutako baliabide propioak:** Tasa uniformea jasotzen da, % 0,3koa, eta kide den Estatu bakoitzaren BEZaren oinarri harmonizatuaren gainean aplikatzen da, salbuespen batzuk kenduta.
- **Nazio-errenta gordinaren (NEG) ondoriozko baliabide propioak:** Kide den Estatu bakoitzak EBko aurrekontuari aberastasunaren ehuneko jakina ematen dio; hori nazio-errenta gordinaren arabera izaten da (2015ean, % 0,66). Oreka-elementu gisa sortu zen arren, sistema hau bihurtu da EBko aurrekontuko sarrera-iturri nagusi.

Horri beste sarrera-iturri batzuk gehitzen zaizkie (% 6 inguru), hala nola EBko langileen soldaten gaineko atxikpenak eta zergak, bankuko interesak, hirugarren herrialde batzuek programa jakinetan egiten dituzten ekarpenak, berandutzagatiko interesak eta isunak.

EUROPA 2014-2020 PROGRAMAZIO BERRIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Finantzaketa-tresnei dagokionez, 2014-2020 aldiko berrikuntza nagusia **administrazio eta finantza arloko sinplifikazioa**¹ da. Azken helburua erakunde mota ororentzako Europako funtsei sarbidea ematea da, eta esku-hartzerako baliabide gehiago bideratzea, eta kudeaketarako, berriz, gutxiago.

Zehazki, horretarako, aldaketa batzuk planteatu dira:

- **Programa kopurua murriztea.** 2014-2020 aldian, aurreko aldian zeuden 80 programa baino gehiago 22 programatan multzokatu dira. Kontzentrazio horrekin, ikuspegiari eta programetan esku-hartzeari koherentzia eman nahi izan zaio eta haien arteko sinergiak ahalbidetu.
- **Helburuak eta lehenetsunak mugatuago.** Programa berriek Europa 2020 Estrategiarekin lotura zuzena dute; aldiz, helburu espezifikoak mugatuagoak daude eta emaitzetara bideratuagoak, adierazle argiagoekin. Programazio berriko joera da iraupen luzeagoko proiektuak eta lehenetsunak murriztuago dituzten deialdiak ahalbidetzea; horiek finantza daitezkeen ekintzak mugatzen dituzte eta. Nazio mailako eta eskualdeko administrazioek protagonismo handiagoa dute nazio mailako esku-hartzerako helburu eta estrategiak definitzean (bereziki egiturazko funtsetan).
- **Arauk bateratzea.** Arau berriek arau sinpleagoak ezartzen dituzte, finantzaketako ehunekoak bateratzen dituzte eta programen arteko sinergiak ahalbidetzen dituzte. Europar Batasuneko finantza-tresna guztientzako komuna zen finantza arloko arau multzo berria 2013ko urtarrilean jarri zen indarrean, Urte Anitzeko Finantza Esparrua hartu aurreko urrats gisa.
- **Justifikatzeko errazagoa.** Arauk malguagoak dira itzulketari dagokionez: ez da proiektuak aurrez finantzatzeagatik sortutako interesak itzuli beharrik eta BEZa onartzen da aukera daitezkeen kostu gisa. Gastuen justifikazioa erraztu egin da: onartu egingo dira erakundearen ohiko kontabilitateko jardunbideak, unitateko kostuak eta oroharreko prezioa.
- **Kontrol ez hain zorrotzak.** Kontrolatutako erakunde eta auditore kopurua murriztea proposatzen da.
- **Emaitzetara bideratutako ikuspegia.** Deialdietan definituago dauden lehenetsunekin eta adierazle zehatzekin, exekutututako gastuen justifikazioan oinarritutako aurretiazko kontu-ematea egin ordez, lortutako emaitzak justifikatzea errazten da. Egiturazko funtsak dira horren adibide, gastuen itzulera helburuak lortzearen mende baitago.
- **Eraginaren eta transferentziaren garrantzia.** 2014-2020 aldian, proiektuen emaitzaren transferentzia eta hedapena garrantzitsuagoa da proposamenak baloratzeko irizpide gisa.
- **Enplegua hazkunde-ardatz gisa.** Proposamenak baloratzeko beti esplizitua ez den irizpidea izango da enpleguaren sorrera edo enplegu-politikei babestea, bereziki gazteentzat eta egoera zaillean dauden kolektiboentzat.

¹ Comunicación de la CE Un programa de simplificación para el Marco Financiero Plurianual 2014-2020 y en dos cuadros de indicadores posteriores [COM (2012) 531 final y COM (2013) 98 final].

EUROPAKO FINANTZAKETAREN ONURADUN POTENTZIALAK

“Onuradun” hitzak erakunde-aukera zabala biltzen du, enpresa txiki eta ertainak, enpresa handiak, erakunde publikoak nahiz gobernu kanpoko erakundeak barne, baita gizarte zibileko erakundeak ere. Unibertsitateak, ikasleak, ikerlariak, nekazariak edo arrantzaleak ere izan daitezke onuradunak, baita herritarrak berak ere, oro har.

Zehazki, Batzordeak onuradun posibleen honako profil hauek bereizten ditu:

- **Enpresa txiki eta ertainak.** ETE-ek diru-laguntzak, maileguak eta bermeak eska ditzakete. Ondasunen edo zerbitzuen hornidura-kontratueterako eskaintzak ere aurkez ditzakete. Enpresa bat ETE gisa hartzeko, 50 eta 250 langile artean izan behar ditu eta/edo urtean gehienez 50 milioi euroko negozio-bolumena edo urtean gehienez 43 milioi euroko balantzea.
- **GKEak.** Irabazi-asmorik gabeko gizarte zibileko eta gobernu kanpoko erakundeek Europako finantzaketara sarbidea izan dezakete haien jarduera-eremuak EBko politikekin lotuta baldin badaude.
- **Gazteak.** EBko aurrekontuek gazteei lan-esperientzia eskuratzen edo atzerrian ikasten laguntzeko programa espezifikoak biltzen dituzte. Gazteen langabeziaren aurka egiteko programak ere badaude. Oro har, programa horiek gazteei (13 eta 31 urte artekoak), gazte-elkarteei edo gazteekin lan egiten duten beste erakunde batzuei zuzenduta daude.
- **Ikerlariak.** Programa bereziak eta beste laguntza-iturri batzuk daude eskuragarri Europa guztiako ikerlarientzat. Ikerketara bideratutako EBko finantzaketa-programa nagusia Horizonte 2020 da. Programa horren bidez, zenbait eremutan partikularrek edo erakundeek egindako ikerketa-proiektuak babesten dira.
- **Nekazariak.** Nekazariak Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) arabera, zuzeneko ordainketak jaso ditzakete. Finantzaketa jaso ahal izateko honako arlo hauetan baldintza jakin batzuk bete behar dituzte: osasun publikoa, landare- eta animalia-osasuna, ingurumenaren eta animalien ongizatea. Finantzaketa herrialdean eskumena duten nazio mailako agintarien bidez bideratzen da.
- **Erakunde publikoak.** Erakunde publikoek, izan tokikoak, eskualdekoak edo nazio mailakoak, EBko finantzaketa-aukera ugari jaso ditzakete, hala nola eraginkortasuna eta erakundeen gaitasuna garatzeko inbertsioak edo tokiko azpiegituren proiektuak.
- **Beste onuradun batzuk.** Aurreko profiletan sartzen ez diren onuradunentzat ere badaude finantzaketarako aukerak EBn. Esate baterako, finantzaketa-aukerak daude Europar Batasunera atxikitzearen eremuan eta krisi ekonomikoari lotuta. Beste finantzaketa-aukera batzuk ere topa daitezke arlo hauetako laguntzetan: asiloa, migrazioa, gizarteratzea, mugak, segurtasun arloko ikerketa eta drogen aurkako politiketako ekimenak.

EUROPAKO FINANTZAKETA JASOTZEKO PROZEDURA

FINANTZAKETA AUKERA BAT IDENTIFIKATZEA

Europako finantzaketa-tresnak asko eta askotarikoak dira. Ugariak dira, gainera, bakoitzak landutako gaia eta zuzentzen zaizkien onuradun hautagaien tipologia ere. Garrantzitsua da dauden finantzaketa-tresnen kudeaketa-eredua ere, behin laguntza emandakoan eskatzen diren finantza- eta lege-eskakizunetan atzeraezinezko eragina izan baitezake.

Hori guztia dela eta, Europako finantzaketa lortzeko, lehen-lehenik finantzatu beharreko proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta finantzaketa-tresna egokiena bilatu eta identifikatu behar da. Hau da, gaiaz gain, lortu nahi diren helburuak, proiektuaren autofinantzaketa maila, aurrez ikusitako egutegia (iraupena, berrikuntza maila...)

Deialdi egokiak bilatu eta identifikatzeko prozesurako, badaude babesa eta informazioa emateko iturri batzuk. Batzordearen eta haren agentzien kanal ofizial publikoak², beste administrazio batzuetakoak (estatuak, eskualdeak...), baita Europako finantzaketa-aukeren inguruko informazioa biltzen duten eta are gehiago, aholkularitza espezifikoak ematen duten ekimen pribatuko zerbitzuak ere.

Finantzaketa-aukeren inguruko informazio-bilketa gaien arabera³ edo finantzaketa-programen arabera⁴ egin daiteke.

BAZKIDEEN BILAKETA

Batzordeak finantzatutako proiektu gehienak lankidetzaproiektuak dira. Bazkide izan daiteke gobernu kanpoko erakunde, ikerketako erakunde edo enpresa oro, edonon kokatuta egonda ere, proiektuko proposamenean zehaztutako zereginak egiteko kualifikatuta baldin badago, betiere.

Hautagaitza aurkeztutako proiektuaren aurretiazko harreman eta esperientzien ondoriozkoa izan daiteke bazkideen lankidetzak.

Hala ere, Batzordetik bertatik bazkideak bilatzeko zerbitzu ugari eskaintzen dira⁵ proiektuetan lan egiteko prest dauden erakundeak topatzen laguntzeko. Dagokion finantzaketa-programaren arabera, harremanetarako nazio mailako puntuak ere bazkideak bilatzeko zerbitzua eskaintzen dute; gainera, bazkideen profil zehaztuak eta elkartze-eskaerak ematen dituzte.

² https://ec.europa.eu/info/funding-tenders_es

³ https://ec.europa.eu/info/funding-opportunities-topic_es

⁴ https://ec.europa.eu/info/funding-tenders-0/overview-funding-programmes_es

⁵ https://ec.europa.eu/research/participants/portal/desktop/en/organisations/partner_search.html

ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

Proposamenen/proiektuen deialdi bakoitzak bere irizpideak eta eskakizunak ditu. Aukeratutako deialdiak berak zehazten ditu, arauetan, eskaera-prozesua, ebaluazioa, eragiketen aukeraketa, baita kudeaketari eta emandako laguntzaren justifikazioari lotutako alderdiak ere.

Eskaera-prozesuak etapa bat edo bi izan ditzake; deialdiaren ezaugarri teknikoen, gaiaren, eskuragarri dagoen aurrekontuaren eta espero den proposamen kopuruaren arabera izango da hori.

Etapak bakarreko prozeduretan, prozesuaren hasieran proposamen osoa aurkeztu beharko da. Bi etapatako prozeduretan, proposamenaren laburpena aurkeztuko da hasieran. Lehen aukeraketan hautatuz gero, bigarren etapan eskaera osoa aurkeztu beharko da.

Gogoratu beharrekoa da hautagaitza prestatzea lan neketsua izan daitekeela, denbora eta baliabide asko eska ditzakeela. Hori dela eta, deialdian adierazitako epea agortu baino lehen proposamena prestatzeko nahikoa baliabide eta denbora eskaintzea garrantzitsua da.

Hautagaitza aurkezteko behar diren eredu eta dokumentu guztiak Batzordeak emango ditu.

Komeni da deialdian argitaratutako jarraibideak zehaztasunez betetzea; bestela, Batzordeak hautagaitza ez onartzea gerta daiteke.

AUKERAGARRITASUNAREN ETA ONARGARRITASUNAREN AZTERKETA

Hautagaitza guztiak bete behar dituzte aurkeztutako deialdiari dagozkion jarraibideetan ezarritako aukeragarritasunaren eta onargarritasunaren irizpideak. Hori dela eta, funtsezkoa da beti deialdiaren jarraibideak kontsultatzea, hautagai den proiektua onargarria dela ziurtatzeko.

Finantzaketa-programa bakoitzean eta deialdi bakoitzean, finantzatu beharreko gastuaren onargarritasun-irizpide espezifikoak zehazten dira.

Kontuan hartu ahal izateko, eskaerek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- epe barruan aurkeztu (deialdian adierazitako mugaeguna baino lehen) aurkezpen-sistema elektronikoen bidez
- osatuta egotea eta dagozkion formulario administratiboak izatea, baita proposamenaren deskribapena eta deialdian zehaztutako egiaztagiri guztiak ere.
- laburra izatea: proposamenaren eredian azalduko da zehaztuta gehieneko orrialde kopurua.

HAUTAGAITZAREN EBALUAZIOA ETA AUKERAKETA

Proposamena aurkeztutakoan, Batzordeak egiaztatuko du onargarria dela (osatuta eta ondo aurkeztuta dagoela) eta aukeragarria dela; horretarako, aditu independenteei eskatuko die ebaluatzeko.

Aditu horiek, deialdian ezarritako irizpideen arabera, jasotako hautagaitza bakoitzaren aukeragarritasuna aztertuko eta zehaztuko dute; ondoren, baloratu eta, hala badagokio, aukeratu egingo dute.

Normalean, deialdietan zehaztuta daude aurkeztutako proiektuak onartzeko eta baztertzeko epaia emateko epeak; hala ere, kasu batzuetan epe hori ez dago zehaztuta, eta itzaroteko fase bat sortzen da Batzordeari eskaera entregatzen zaionetik proiektua onartzen den arte; epe hori hautagaiak onartu egin beharko du.

Edonola ere, deialdia ebatzitakoan, Batzordearen baiezeko erantzuna egiaztagiri ofizial bidez egingo da eta bi formatu izan ditzake:

- Proiektua aurkeztu zen moduan onartzea; horretarako, deialdia egin duen erakundearen eta hautagaiaren artean finantzaketa-kontratua sinatzea besterik ez da beharko.
- Aurkeztutako dokumentazioaren inguruan aldaketa batzuk egiteko baldintzapean emandako onarpena. Bigarren kasu horretarako, negoziazio-aldi bat ireki ohi da aldaketan irismena, finantzaketan eta jardueretan duten eragina eta abar hitzartzeko.

FINANTZAKETA AKORDIOA SINATZEA

Behin deialdia erabakitakoan eta proposamena onartutakoan, hurrengo urratsa finantzaketa-akordioa sinatzea da.

Fase honetara iritsita, Batzordeak eskatzaileari proposamenean sartu gabeko informazio juridiko eta administratibo guztia eska diezaioke; eta dagokionean, ebaluazio-txostenean Batzordeak iradokitako aldaketak proposamenean sartzeko prestutasuna ere eska diezaioke.

PROIEKTUAREN KUDEAKETA

Proiektuaren exekuzio faseak proposamena praktikara eramatea ahalbidetzen du. Behin finantzaketa-akordioa sinatuta, kudeatzaileak proiektua kudeatu beharko du aurkeztutako hautagaitzaren/proposamenaren arabera, aurrez ikusitako egutegiaren baitan.

Prozesu honetan Batzordeak edo agentzia arduradunak jarraibideak emango ditu adostutako epeetan eskatutako zeregin bakoitzerako.

Hori dela eta, funtsezkoa da honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- Txostenak aurkeztea: aldizka, txosten teknikoak eta finantzarioak aurkeztu beharko zaizkio Batzordeari.
- Emaizta ukigarriak: diru-laguntzaren akordioan adierazitako emaitza ukigarriak aurkeztu beharra izan dezake (informazioa, txosten berezia, liburuxka eskematiko teknikoa, zerrenda bat, programa informatikoa, mugarriak eta abar).

Proiektuaren garapenarekiko paraleloan, eta bereziki behin amaitutakoan, Batzordeak haren exekuzioa gainbegiratuko du, sinatutako diru-laguntzaren akordioaren arabera egin dela bermatzeko. Kontrol- eta auditoretza-prozesu horrek berekin ekarriko ditu honako hauek:

- diru-laguntzaren akordioan xedatutakoaren arabera, proiektuaren exekuzioa zuzena dela egiaztatzea, emaitza ukigarriak eta txostenak laneko planarekin eta deskribapenarekin koherenteak direla egiaztatzea barne.
- onuradunaren kontuen finantza-auditoretza, izandako gastu hautagarriak egiaztatzeko.

Nahitaez bete beharrekoa da auditoretzaren pista, hau da, proiektua behar bezala exekutatu dela frogatzeko egiaztagiria gordetzea eta erregistroak egitea. Gastu hautagarriei buruzko erregistroak egitea eta horri dagokion kontabilitatea eramatea biltzen du horrek.

Hala ere, eta beharrezkoa izango balitz, finantzaketa-akordioa aldatu egin ahal izango da proiektuaren baldintzetan edo emandako laguntzan aldaketarik egongo ez balitz.

ORDAINKETA

Diru-laguntzen kasuan, oro har, ordainketa proiektuan zehar zatituko da. Diru-laguntzaren akordioa sinatutakoan, eskatzaileak aurrefinantzaketaren lehen ordainketa jasoko du, eta jarraian tarteko ordainketa bat edo gehiago izan ditzake. Eskatzaileak azken ordainketa proiektua amaitutakoan jasoko du.

Tarteko ordainketak eta azken ordainketa proiektuaren emaitzen arabera izango dira. Garrantzitsua da proiektuaren aurrerapenaren berri ematea, diru-laguntzaren akordioan sartutako egutegiari jarraituz.

FINANTZAKETA TRESNAK

Laguntza-programak eta zuzeneko kudeaketa-funtsak (diru-laguntzen bidezko finantzaketa)

Potikak garatzeko EBk esleitutako baliabide gehienak nazio mailako eta eskualdeetako agintaritzek kudeatzen dituzten arren, Europako Batzordeak zuzenean kudeatzen dituen Programak egokitzen ditu.

Kasu horietan, Europako Batzordeak, Zuzendaritza Nagusien bidez edo Agentzien bidez, arautzen, kudeatzen eta esleitzen ditu baliabideak diru-laguntzak erabilita. Diru-laguntza horiek proposamenen deialdiak oinarri hartuta eta finantzaketa-programa izenekoan testuinguruan ematen dira, eta horien bidez ezartzen dira Europako politika jakin bat garatzeko helburuak, lehentasunak eta ekintzak.

Programa bakoitzak bere ezaugarriak baldin baditu ere, intereseko datu batzuk labur ditzakegu:

- **Egutegia.** Programa batzuek urteko deialdien bidez funtzionatzen dute (LIFE, Erasmus+), beste batzuek programazio-aldiko 3 eta 5 arteko aldiekin (2014tik 2020ra artekoa barne), erakunde kudeatzaileek erabakitakoaren arabera, eta beste batzuek, berriz, ia deialdi iraunkorrak dituzte (H2020, nahiz eta gai oso zehatzekin –topics, jargoian–).
- **Beharrezko dokumentazioa.** Deialdien arabera oso aldakorra den arren, ezaugarri komuna dute zerrenda luzea dela. Dokumentazio administratiboa, teknikoa eta ekonomikoa sartu behar da. Hautagaitzak horretarako egindako plataforma informatikoen bidez aurkezten dira. Karaktere-mugak daude. Deialdi zentralizatuetarako, lanerako hizkuntza ingelesa da. Zentralizatu batzuetarako, hizkuntza ofizialeko batzuetarako itzulpena eskatzen da (gaztelania, frantsesa, portugesa, ingelesa).
- **Finantzaketa-tarteak.** % 50 eta % 100 artekoak dira. EBko ohiko laguntza-tasa % 65 eta % 75 artekoa da. Merkataritzako erakunde pribatuei finantzaketa-tasa murriz dakieke, kasu batzuetan, Estatu laguntzen eta minimis laguntzen araudiak aplikatzeagatik.
- **Gastu hautagarri mota.** Gastu hautagarrien kategoriak nahiko homogeneousak dira: langileak, bidaiak- eta lekualdaketa-gastuak, asistentzia teknikoak, azpiegiturak (ez Programa guztietan), ekipamenduak (berdin), beste gastu batzuk. Kasu batzuetan, flat-rate delakoa ezartzen da (kostu sinplifikatuak) bulegoko gastuetarako, kontsumo energetikoetarako eta antzekoetarako.
- **Gastuen justifikazioa.** Kasu batzuetan, Programak funtsen zati bat aukeratu du, aldiz, beste batzuetan, gastuak sortu ahala ordaintzen dira. Denek dute gauza bat komunean: justifikazioa korapilatsua da, gastuaren eta emaitzen (adierazleak) kontrol zorrotza eraman behar da eta auditoria-kontrol ugari daude.
- **Erakundeen tipologia.** Programa gehienek onartzen dituzte bazkide gisa erakunde publikoak eta pribatuak. Hautagaitza baten arrakastaren zati handia da lankidetzak publiko-pribatua eta kide diren Estatu ugariaren partaidetza lortzea.
- **Fase kopurua.** Bat edo bi izan daitezke. Programa batzuek lehenengo txosten laburtua eskatzen dute (interesa adierazteko); hori Programazio Batzordeek / Ebaluatzaileek (normalean, kanpokoak) ebaluatzen dute. Atalase jakin bat gainditzen duten proiektuak bakarrik (haien muga deialdiko funtsen disponibilitateak zehazten du, normalean aurrekontuaren % 150) aurkez daitezke bigarren fasera; orduan txosten osoa aurkeztu behar da, eta bigarren fase horretan, proiektuen % 30 inguru baztertzen dira. Beste deialdi batzuetan, aldiz, zuzenean txosten osoa aurkezten da: fase bakarreko deialdiak dira horiek.

- **Deialdien gaiak.** Programa batzuk oso espezializatuak dira, diru-laguntzaren helburu den topic edo gai bakarra dutenak, eta beste batzuek, aldiz, askotariko gaiak biltzen dituzte, eremu handi bakarraren barruan (ingurumena edo kultura, esaterako), edo eremu ugaritan (I+G+b, ingurumena, mugikortasuna, arriskuen prebentzioa...).
- **Emateko printzipioak.** Diru-laguntzak emateko, gardentasun, berdintasun, ez-metaketa, atzeraeraginik ez eta kofinantzaketako printzipioak hartzen dira kontuan.

HORIZON 2020

Europako Batzordea. Ikerketa eta Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.

Europar Batasunak ikerketa eta berrikuntzako jarduera asko Esparru Programan biltzen ditu; 2014-2020 aldirako, HORIZON 2020 deitzen zaio. Hain zuzen ere, hiru zutabetan, erronka sozial nagusiak lantzen lagunduko du, Europako industria mailako lidergoa sustatuz eta oinarri zientifikoaren bikaintasuna indartuz.

Programaren helburua da erronka sozial nagusiak lantzen laguntzea, European industria mailako lidergoa sustatuz eta oinarri zientifikoaren bikaintasuna indartuz.

HORIZON 2020 programak berrikuntzaren fase guztiak txertatzen ditu, ezagutza sortzea eta merkatutik gertuen dauden jarduerak barne: oinarriko ikerketa, teknologien garapena, frogatzeko proiektuak, fabrikazioko lerro pilotuak, berrikuntza soziala, teknologiaren gardentasuna, kontzeptu-probak, normalizazioa, erosketa publiko aurre-komertzialak babestea, arrisku-kapitala eta berme-sistema.

- I. zutabea:

ZIENTZIA BIKAINA. Bikaintasunezko zientzia sortzea da helburua, EBren kokapena indartu ahal izateko mundu mailako ikuspegi zientifikoan.

- II. zutabea:

INDUSTRIA ARLOKO LIDERGOA. Industriarako gakoak diren teknologian bertsio garrantzitsuak ditu, esaterako, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT), nanoteknologiak, fabrikazio aurreratua, bioteknologia eta espazioa. Ardatz honetan ETE-etarako jarduerak nabarmentzen dira. Gainera, enpresa horiek "ETE tresna" izenekoa dute eskura; horrek finantza ditzake, besteak beste, kontzeptuaren ebaluazioa eta garapenerako bideragarritasuna, eta merkatuko erakustaldia eta erreplikazioa. Bestalde, laguntza-zerbitzuekin merkaturatzeko laguntza ere jaso dezake emaitzetan ustiaketa errentagarri egiteko.

- III. zutabea:

ERRONKA SOZIALAK. Bizimodu hobeko funtsezko sei arlotan oinarritzen da arreta: osasuna, elikadura eta nekazaritza, itsasoko zientziak barne; energia, garraioa, klima eta lehengaiak, gizarte inklusiboak eta segurtasuna.

- Gai HORIZONTALAK:

Zientzia gizarterako eta bikaintasuna hedatzea eta partaidetza zabaltzea.

[\(Informazio gehiago\)](#)

HORIZON 2020 – Zutabea: "ZIENTZIA BIKAINA"

Erronka honen helburu nagusia da Europako oinarritzko zientzian bikaintasun maila handitzea eta kalitatezko ikerketa-fluxu konstantea ziurtatzea, Europako epe luzeko lehiakortasuna bermatzeko. Helburu hori lortzeko, ideia onenak hartzen dira oinarri eta Europaren barruan talentua garatzea lortu nahi da. Era berean, ikerlariak lehentasunezko ikerketako azpiegiturretara sarbidea izatea ziurtatu nahi da, eta Europa munduko ikerlari onentzako erakargarri izan dadin egitea.

Zientzia Bikainaren zutabeak dituen helburuak honako puntu hauetan labur daitezke:

- Talentua duten pertsoneri eta pertsona sortzaileei eta haien taldeei babesa ematea kalitate handiko puntako ikerketa egiteko, Ikerketako Europako Kontseiluaren (ERC) arrakastan oinarrituta.
 - [Advanced Grants \(AdG\)](#)
 - [Consolidator Grant \(CoG\)](#)
 - [Proof of Concept \(PoC\)](#)
 - [Synergy Grants \(SyG\)](#)
 - [Starting Grants \(StG\)](#)

- Lankidetzako ikerketa finantzatzea berrikuntzako eta ikerketako etorkizun handiko eremu berriak zabaltzeko, Etorkizuneko eta Sortzen ari diren Teknologietarako (FET) laguntzaren bidez. Etorkizuneko eta sortzen ari diren Teknologia irekien jardueren (FET OPEN) helburua da lankidetzan egindako arrisku handiko ikerketa zientifiko eta teknikoaren proiektu handiak indartzea. Teknologia haustaile berriak sortzeari lotutako proiektuak dira. Jarduera horiek deialdi ireki eta iraunkorren bidez finantzatzen dituzte proiektuak.
- Ikerlari bikaintasunean eta garapenerako aukera onenetan oinarritutako prestakuntza ematea Marie Skłodowska-Curie (MSCA) jardueren bidez.
 - [Innovative Training Networks \(ITN\)](#)
 - [Individual Fellowships \(IF\)](#)
 - [Co-funding of Regional, National and International Programmes \(COFUND\)](#)
 - [Research and Innovation Staff Exchange \(RISE\)](#)
 - [Researchers NIGHT](#)

- Europak lehen mailako ikerketako azpiegiturak dituela ziurtatzea (e-azpiegiturak barne), Europan eta harago ikerlari guztientzat eskuragarri.
 - Mundu mailako azpiegitura berriak garatzea
 - Europako herrialdeen intereseko azpiegiturak txertatzea eta irekitzea
 - Azpiegitura elektronikoak
 - Berrikuntzarako euskarria, giza baliabideak, estrategia eta nazioarteko lankidetzak
 - [ESFR](#)
 - [ERIC](#)

HORIZON 2020 – Zutabea: "INDUSTRIA ARLOKO LIDERGOA"

Lehentasun honen helburua da etorkizuneko enpresentzat oinarri izango diren berrikuntzen eta teknologien garapena bizkortzea, eta Europako ETE berritzaileei mundu mailako enpresa lider bihurtzeko laguntzea.

Hiru helburu espezifiko ditu:

1. Lidergoa industria arloko eta gaikuntzaren inguruko teknologietan
2. Arriskuko finantzaketarako sarbidea
3. ETE-etarako berrikuntza

Jarduera horiek enpresa munduan bultzatutako agenden arabera izango dira. «Arriskuko finantzaketarako sarbidea» eta «ETE-etarako berrikuntza» helburu espezifikoetarako aurrekontuek goranzko logika izango dute, eskaerak sustatutakoa, aurrez zehaztutako lehentasunik gabe.

Hiru helburu espezifikoak finantza-tresnen erabileraren bidez garatuko dira, esaterako, ETE tresnaren bidez.

PYME tresna

ETE tresnak edo SME Instrument-ek (ingelesez) enpresa txiki eta ertainentzako ikuspegi eksklusiboa du. Azpiprograma honen finantzaketa berrikuntza mota orori aplikatuko zaio, teknologikoak ez diren berrikuntzak eta zerbitzuko berrikuntzak barne.

Programa honen barruan aurkeztutako proiektuak banakakoak edo ETE-ek osatutako partzuergoak izan daitezke, eta Berrikuntzaren prozesu osoan jasotzen dute finantzaketa fasekako diru-laguntzaren eskema baten bidez, Europako berrikuntza-proiektu baten bidez handitzeko, garatzeko eta nazioartekotzeko asmoa duten ETE tradizionaleri edo berritzaileei babesa emateko.

Jarraian, enpresa batek jaso ditzakeen ETE tresnaren faseak deskribatu ditugu.

1. fasea: Bideragarritasunaren kontzeptua eta ebaluazioa. Lehen fase honetan, "Business Plan" edo bideragarritasun zientifiko edo teknikoaren azterketa eta ideia berriaren merkataritzarako potentziala finantzatzen du programak, proiektu berritzailea garatzeko asmoz. 50.000 euroko diru-laguntza da, itzuli beharrik gabekoa.
- 2. fasea: Erakustaldi eta erreplikazio komertziala. 1. fasean aurkeztutako proiektuaren garapenera bideratutako finantzaketa. Fase honetan Ikerketa, Garapen eta Erakustaldiko jarduerak finantzatzen dira (Prototipoak, probak, prozesu berritzaileen diseinua, errendimendu-egiaztapenak, besteak beste), baita erreplikazio komertziala ere.
- 3. fasea: Merkaturatzea. Hirugarren fase honetan, enpresek ez dute zuzeneko finantzaketarik jasoko. Europar Batasunak kapital pribatuko eta ingurune egokietarako sarbidea ahalbidetu nahi du, arrisku-finantzaketarako sarbidea eta loturak ezartzeko asmoz.

ETE onuradunei babes-neurri alternatiboak eskaintzen zaizkie, esaterako, prestakuntza, aholkularitza, coachinga eta merkataritzaren aurreko kontratazioa sustatzeko neurriak eta irtenbide berritzaileak.

[\(Informazio gehiago\)](#)

HORIZON 2020 – Zutabea: “ERRONKA SOZIALAK”

Zutabe honetan islatzen dira Batasunaren helburu politikoak lortzea ahalbidetuko duten ikerketa eta berrikuntza estimulatzeko Europa 2020 Estrategiaren lehentasun politikoak eta erronkak. Finantzaketa honako helburu espezifiko hauetan oinarritzen da (Erronkak):

- Osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea
- Elikadura-osasuna, nekazaritza eta basogintza iraunkorra, itsas ikerketa, itsasokoa eta barneko urena eta bioekonomia
- Energia segurua, garbia eta eraginkorra
- Garraio adimentsua, ekologikoa eta integratua
- Klima, ingurumen, baliabide eta lehengaien eraginkortasunaren aldeko ekintza
- Europa mundu aldakorrean: gizarte inklusibo, berritzaile eta gogoetatsuak
- Gizarte seguruak: Europako eta bertako herritarren askatasuna eta segurtasuna babestea.

Jarduera guztietan aplikatuko den ikuspegiak gizarteak aurre egin behar dien erronkei erantzuteko helburua izango du, oinarritzko ikerketa edo ikerketa aplikatua, berrikuntza edo teknologiaren transferentzia barne, lehentasun politikoetan oinarrituta, garatu beharreko irtenbide edo teknologiak aurrez zehaztu gabe. Teknologian oinarritutako irtenbideak kontuan hartzeaz gain, teknologikoa ez den eta antolaketa mailako berrikuntza ere aintzat hartu behar da, baita berrikuntzako sistemak eta berrikuntza sektore publikoan ere.

Erronka soziala: osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea

Erronka honen helburu nagusia da bizitza osoko osasuna eta guztion ongizatea lortzea, kalitate handiko eta ekonomikoki iraunkorrak diren asistentzia- eta osasun-sistemak, eta lanpostu berriak sortzeko eta hazkunderako aukerak izatea.

Honako alderdi hauek daude jasota erronkan:

- Osasuna, ongizatea eta gaixotasuna ulertzea.
- Gaixotasuna prebenitzea
- Gaixotasunen tratamendua eta kudeaketa.
- Zahartze aktiboa eta osasunaren autokudeaketa.
- Metodoak eta datuak.
- Osasun-arretako prestazioak eta asistentzia integratua

[\(Informazio gehiago\)](#)

Erronka soziala: Elikadura-osasuna, nekazaritza eta basogintza iraunkorra, itsas ikerketa, itsasokoa eta barneko urena eta bioekonomia

Erronka honen helburu espezifikoa da kalitate handiko elikagai seguruen eta osasungarrien eta beste bioproduktu batzuen hornidura nahikoa bermatzea. Horretarako, baliabideetan eraginkorrak, iraunkorrak eta produktiboak diren lehen mailako produkzio-sistemak garatuko dituzte eta dagozkion ekosistemetako zerbitzuak eta aniztasun biologikoa berreskuratzea sustatuko dute, lehiakorrak diren eta karbono-igorpen baxua duten hornidurako, eraldaketako eta merkaturatzeko kateekin batera. Hala, Europako bioekonomia iraunkorreranzko trantsizioa bizkortuko da, teknologia berrien eta haien ezarpenaren arteko arraila murriztuz.

Honako hauek dira jarduera-ildo nagusiak, JTI-BBI Bioindustriak barne:

- Nekazaritza eta basozaintza iraunkorra
- Elikadura: Nekazaritzaren eta elikaduraren sektore lehiakorra eta iraunkorra dieta osasuntsua eta segurua izateko
- Ur baliabideak: Ur-baliabide bizien potentziala desblokeatzea
- Bioindustria: Bioindustria iraunkorrak eta lehiakorrak, Europako bioekonomiaren garapena ahalbidetzeko
- Itsasoaren eta itsasaldearen zeharkako ikerketa
- Bioindustriren JTI: Biomasa, Prozesuak, Produktuak eta Merkatuak.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Erronka soziala: Energia segurua, garbia eta eraginkorra

Helburu nagusia da energia-sistema fidagarri, eskuragarri batera trantsizioa egitea, onarpen publikoa, iraunkorra eta lehiakorra izango duena, baliabideak gero eta urriagoak diren, energia-beharrak gero eta handiagoak diren eta klima-aldaketa dugun garaiotan, erregai fosilekiko mendekotasuna murriztea.

Erronka honi dagokionez, ekintzak honako jarduera-ildo hauetan oinarrituko dira:

- Energia-kontsumoa eta karbono-oinatza murriztea erabilera adimentsua eta iraunkorra eginez.
- Kostu baxuko eta karbono-igorpen gutxiko elektrizitatea hornitzea
- Erregai alternatiboak eta energia-iturri mugigarriak
- Europako sare elektriko bakarra eta adimentsua
- Ezagutza eta teknologia berriak
- Sendotasuna erabakiak hartzean eta konpromiso publikoa
- Berrikuntza energetikoaren merkatuak xurgatzea, merkatuak eta kontsumitzaileak gaitzea.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Erronka soziala: Garraio adimentsua, ekologikoa eta integratua

Erronka honen helburu nagusia da Europako garraio-sistema eraginkorragoa lortzea baliabideen erabilerrari dagokionez, klimarekin eta ingurumenarekin errespetuzkoa izango dena eta segurtasunez eta pitzadurarik gabe funtzionatuko duena herritar guztien, ekonomiaren eta gizartearen onurarako.

2020 horizontean txertatuta dagoen, ekologikoa eta adimentsua den garraio arloko jarduerak arlo orokor hauen inguruan antolatuta egongo dira:

- Baliabideen erabilerrari dagokionez eraginkorra den eta ingurumena errespetatzen duen garraioa (garraio eraginkorraren orrialderako esteka)
- Mugikortasun hobea, pilaketa txikiagoa, segurtasun handiagoa (mugikortasun hobearen orrialderako esteka)
- Garraioaren Europako industriarako mundu mailako lidergoa (mundu mailako lidergoaren orrialderako esteka)
- Ikerketa sozioekonomikoa eta jokabideena, eta prospektibako jarduerak politikak egiteko (ikerketa sozioekonomikoen orrialderako esteka)

- 2020 Horizontean Garraioari esleitutako funtsen zati oso garrantzitsua parteneriatu publiko-privatuen (PPP) bidez bideratuko da, bai erakunde mailako PPP edo JTI (Joint Technology Initiatives) gisa, bai kontratu mailako PPP gisa (cPPP).

[\(Informazio gehiago\)](#)

Erronka soziala: Klima, ingurumen, baliabide eta lehengaien eraginkortasunaren aldeko ekintza

Erronka honi dagokionez, ekintzak honako jarduera-ildo hauetan oinarrituko dira:

- Klima-aldaketaren aurkako borroka eta horretara egokitzea
- Ingurumena babestea, eta baliabide naturalen, uraren, bioaniztasunaren eta ekosistemen kudeaketa iraunkorra.
- Nekazaritzakoak ez diren eta energetikoak ez diren lehengaien hornidura iraunkorra bermatzea
- Ekoberrikuntzaren bidez ekonomia eta gizarte berde baterantz joateko aukera
- Mundu mailako ingurumenari buruzko informazio- eta behaketa-sistema osoak eta jarraituak garatzea
- Ondare kulturala

[\(Informazio gehiago\)](#)

Erronka soziala: Europa mundu aldakorrean: gizarte inklusibo, berritzaile eta gogoetatsuak

Erronka sozial honen helburu espezifikoa da Europa hobeto uler dadin sustatzea, irtenbideak eskaintzea eta Europako gizarte inklusiboak, berritzaileak eta gogoetatsuak babestea gero eta elkarrekiko mendekotasun handiagoko eta aurrekaririk gabeko eraldaketen testuinguruan.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Erronka soziala: Gizarte seguruak: Europako eta bertako herritarren askatasuna eta segurtasuna babestea.

Mundu mailan gero eta elkarrekikotasun handiagoa eta mehatxuak gero eta ugariagoak diren egoera honetan, aurrekaririk gabeko eraldaketako testuingurua izanik, Europako gizarteak seguruak izan daitezen sustatzea da helburua, eta askatasunaren eta justiziaren Europako kultura indartzea.

Helburu espezifiko hauek lortu nahi dira:

- delinkuentziaren, legez kanpoko terrorismoaren eta trafikoaren aurka borroka egitea, terrorismoaren ideia eta sinesmenen aurka borroka eginez eta ulermena bilduz
- azpiegitura kritikoen, hornidura-kateen eta garraio-bideen erresilientzia babestea eta hobetzea.
- segurtasuna indartzea mugen kudeaketaren eta itsasoko segurtasunaren bidez
- segurtasun zibernetikoa hobetzea
- Europak krisien eta hondamendien aurrean duen erresilientzia handitzea

- pribatutasuna eta askatasuna bermatzea, Internet barne, eta elkar ulertze soziala, lege mailakoa eta etikoa hobetzea segurtasunaren, arriskuaren eta kudeaketaren eremu guztietan.
- sistemen estandarizazioa eta interoperatibitatea hobetzea, larrialdietara bideratutakoena barne; Batasunetik kanpoko segurtasun-politikak babestea, gatazken prebentzioa eta bakearen eraikuntza barne.

[\(Informazio gehiago\)](#)

EaSI. Enplegurako eta Berrikuntza Sozialerako Europako Programa 2014-2020 aldirako.

Europako Batzordea. Enplegua, Gizarte Gaiak eta Gizarteratzea Zuzendaritza Nagusia

Programaren helburua Europar Batasunean enpleguaren sorrera sustatzea eta gizarte-politikaren eta mugikortasunaren alde egitea da. Arreta berezia eskainiko zaie egoera zailean dauden taldeei, gazteei, adibidez. Zehazki, programaren harira sustatuko da kalitatezko enplegu jasagarria sortzea, babes sozial egokia eta duina bermatzea, gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurkako borroka eta lan-baldintzak hobetzea.

Hona hemen programaren 3 ardatzak:

- "PROGRESS", EBren enpleguaren arloko politikak eta tresnak garatzen, aplikatzen, horien jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzeko, batez ere, gazteen langabeziaren aurkako borrokan, babes sozialean, gizarteratzean, pobrezia murriztu eta prebenitzearen eta lan-baldintzak hobetzearen arloan.
- "EURES", Europar Batasunean pertsonen mugikortasuna sustatzeko ekintzak, mugikortasun hori bidezkoa izan dadin eta oztoporik izan ez dezan.
- "MIKROFINANTZAKETA ETA EKINTZAILTZA SOZIALA", pertsona fisikoek eta juridikoek finantzaketa eskuragarri eta erabilgarri izateko.

[\(Informazio gehiago\)](#)

COSME Enpresen eta ETE-en Lehiakortasunerako Programa, 2014-2020 aldirako

Europako Batzordea. Enpresak eta Industria Zuzendaritza Nagusia

Enpresen lehiakortasuna hobetzera bideraturiko ekintzen programa. Arreta berezia eskaintzen die enpresa txiki eta ertainei. Programaren helburu orokorrak Batasuneko enpresen –bereziki ETE-en– lehiakortasuna eta jasangarritasuna indartzea, enpresa-kultura indartzea eta ETE-en sorrera eta handitzea sustatzea dira.

Honako hauek dira finantzaketa jaso dezaketen ekintzak:

- ETE-ek, hasierako faseetan, haztean eta transmisioan finantzaketa errazago eskuratzeko ekintzak.
- ETEak barneko merkatura errazago sartzeko ekintzak; adibidez, programei, legeriari, Batasuneko arauari eta abarrei lotutako informazioa eta sentsibilizazioa zabaltzeko ekintzak.
- Enpresak babesteko Europako Sarea (EEN):

Batzordeak babestu egingo du Enpresen Europako Sarea. Horren helburua zera da, enpresa arloko laguntza integratua eskaintzea, barneko merkatuan eta beste herrialde batzuetan zer aukera dituzten probatu nahi duten Batasuneko enpresa txikiei eta ertainei.

- Batasuneko enpresen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko baldintza orokorrak hobetzeko ekintzak, batez ere ETEei bideratuak. Helburua EBko enpresen lehiakortasuna, jasangarritasuna eta hazkuntza sustatuko duten politika nazionalen eta eskualde-politiken eraginkortasuna, koherentzia, koordinazioa eta izaera sistemikoa areagotzea izango da.
- Ekintzailetza eta enpresa-kultura sustatuko duten ekintzak, enpresak sortzeko oztupoak murriztea barne. Horien helburua ekintzailetza garatzeari eragiten dioten baldintza orokorrak hobetzea da.

[\(Informazio gehiago\)](#)

ERASMUS+. Hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari laguntzeko programa, 2014-2020

Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia EACEA- Hezkuntza, Ikus-entzuneakoak eta Kulturako Agentzia Exekutiboa

Erasmus+ programa EBk hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirola arloetarako 2014-2020 aldirako duen programa da.

2007-2013an izandako programa hauek uztartzearen emaitza da: Etengabeko Ikaskuntza Programa (Comenius, Erasmus, Leonardo da Vinci eta Grundtvig); Gazteak Ekinean Programa; Erasmus Mundus Programa; Tempus IV; Alfa III; Edulink eta herrialde industrializatuekin goi mailako hezkuntzan elkarlanean aritzeko programak.

Hiru aplikazio eremutan banatuta dago programa:

- Hezkuntza eta prestakuntza.

Maila guztietan, etengabeko ikaskuntzaren ikuspegia oinarritzat hartuta, honako hezkuntza hauek barne: eskolako hezkuntza (Comenius), goi mailako hezkuntza (Erasmus), nazioarteko goi mailako hezkuntza (Erasmus Mundus), hezkuntza eta prestakuntza profesionalak (Leonardo da Vinci) eta helduen ikaskuntza (Grundtvig).

- Gazteria (Gazteak Ekinean), batez ere ikaskuntza ez-formala eta informala.
- Kirola, bereziki oinarri-kirola.

Gainera ikasleei maileguak emateko berme-mekanismo bat ere ezarri da, maileguen finantza-bitartekariei berme partzialak emateko.

Programaren aplikazio-eremu bakoitzean hiru motatako ekintzak egin ahal izango dira:

- Pertsonen mugikortasuna
- Berrikuntzarako lankidetzeta eta jardunbide egokien trukea
- Politiken erreformarako laguntza.

[\(Informazio gehiago\)](#)

CREATIVE EUROPE, 2014-2020

Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia

Europan ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren sektorea babestera eta sustatzera zuzendutako programa. Programaren helburua ikus-entzunezkoen, kulturaren eta sorkuntzaren arloko eragileek Europa osoan lan egitea da, hala, beste herrialde batzuetan aukera berriak izateko eta aro digitalari lotuta beharrezkoak diren gaitasun berriak garatzeko. Kulturari eta hizkuntzei lotuta Europan dugun aniztasuna zaintzea ere programaren helburuetako bat da.

Honako hauek osatzen dute programa:

- MEDIA azpiprograma.

Finantza arloko laguntza ematen dio Europar Batasuneko zinematografiaren eta ikus-entzunezkoen industriari, egiten duten lana garatzeko, hedatzeko eta sustatzeko.

- KULTURA arloko azpiprograma.

Kultura eta sorkuntza arloko erakundeei nazioz gaindi lan egiten laguntzen die eta kultura arloko lanei eta artistei, berriz, herrialde batetik bestera mugitzen. Finantzaketarako aukerak askotarikoak dira: lankidetzarako proiektuak, literatura arloko itzulpenak, sareak eta plataformak.

Creative Europe programak Kulturaren Europako Hiriburuak eta Europako Ondarearen Zigilua ere babesten ditu. Baita Europako sariak ere, literatura, arkitektura, ondarearen babesak, zinema eta rock eta pop musikaren arlokoak.

Programak badu Finantzaketa Bermatzeko Tresna ere, kulturaren eta sorkuntzaren sektoreetarako. Leihorik bat zabaldu da, alegia, Europako Batzordeak, Inbertsioen Europako Funtzaren bidez, finantza-bitartekariak kultura eta sorkuntza sektoreko ETE-ei ematen dizkieten maileguzko doako bermeak emateko mekanismoa. Hala, enpresa horiek finantzaketa errazago eskuratu ahal izango dute.

[\(Informazio gehiago\)](#)

GAZTEEN ENPLEGURAKO EKIMENA. Gazteentzako Berme Funtza, 2014-2020.

Europako Batzordea. Enplegua, Gizarte Gaiak eta Gizarteratzea Zuzendaritza Nagusia

Gazteen langabeziaren aurrerako borrokarako ekimena da. Helburua 25 urtetik beherako gazte guztiak, enplegu-zerbitzuetan izena emanda daudenek eta ez daudenek, prestakuntza amaitzen dutenetik edo langabezialdia hasten dutenetik lau hileko epean eskaintza zehatz bat jasotzea da, kalitatezkoa.

Eskaintza hori lan bat, praktika-aldi bat, enpresa batean egiteko prestakuntza edo ikaskuntza-zentro bateko ikastaro bat izan daiteke eta bakoitzaren behar eta egoerara egokituta egon beharko du.

Estatu kide bakoitzak gazteen langabeziari aurre egiteko bere estrategiak garatu behar ditu, bakoitzak bere ezaugarriak aintzat hartuta.

[\(Informazio gehiago\)](#)

EUROPA LOTZEA, 2014-2020

Europako Batzordea. Energia eta Garraioak Zuzendaritza Nagusia

Europaz gaindiko sareen politikaren arloan garraio, telekomunikazio eta energia sektoreetan interes partekatuko proiektuak prestatzeko eta gauzatzeko aukera ematen duen tresna bat da.

Bereziki, laguntza ematen du garraioaren, telekomunikazioen eta energiaren sektoreetan, azpiegitura eta zerbitzu berriak garatzera eta eraikitzen edo lehendik daudenak hobetzera bideratutako interes partekatuko proiektuak gauzatzeko. Lehenetsita daude garraioaren sektorean falta diren loturak.

Horrez gain, balio erantsi europarra eta abantaila sozial nabarmenak dituzten proiektuak babesten ere parte hartzen du; hau da, merkatuaren finantzaketa egokia jasotzen ez dutenak.

Hiru sektoretara daude ekintzak bideratuta:

- Garraioaren sektorea: botila-lepoak desagerraraztea, garraioaren elkarrengarritasuna hobetzea, lotura berriak egitea eta, bereziki, mugaz gaindiko tartekak hobetzea; garraio-sistema jasangarri, eraginkor eta seguruak bermatzea; garraiobideen integrazioa eta elkarrekiko lotura optimizatzea eta garraio-zerbitzuen elkarrengarritasuna indartzea, garraio-azpiegituretako irisgarritasuna bermatuz.
- Energiaren sektorean, honako helburu hauek dituzten ekintzak: elektrizitate- eta gas-sareen mugaz gaindiko elkarrengarritasuna hobetzea, Batasuneko energia-horniduraren segurtasuna hobetzea, garraio-sarean iturri berriztagarrietako energia txertatzea eta energiaren sare adimendunak hobetzea.
- Telekomunikazioen sektorea: Europaz gaindiko sareetarako jarraibideei buruz dagokion araudian zehaztutako helburuak dituzten jarduerak, telekomunikazioetako azpiegituren arloan.

[\(Informazio gehiago\)](#)

LIFE 2014-2020

Europako Batzordea. Ingurumena Zuzendaritza Nagusia

Hona hemen LIFE programaren helburuak:

- laguntza eskaintzea baliabideen erabileran eraginkorra, hipokarbonikoa eta klima aldaketariko erresilientea izango den ekonomia lortzeko bidean, ingurumena babesten eta ingurumenaren kalitatea hobetzen, biodibertsitatearen galera moteltzen eta gerarazten. Hor sartzen dira Natura 2000 sarea babestea eta ekosistemen degradazioari aurre egitea ere.
- Europar Batasunean hobekuntzak egitea ingurumen arloko politiken garapenean, aplikazioan eta gauzatzean eta ingurumen eta klima arloko legerian, eta ingurumen eta klima arloko helburuak Batasunaren beste politika batzuetan eta sektore publiko zein pribatuaren praktikan txertatzeko katalizazio- eta sustapen-lana egitea, baita helburu horien gaitasuna handitzea ere.
- ingurumenaren eta klimaren arloan, maila guztietan, gobernantza hobea izateko lan egitea; besteak beste, gizarte zibilaren, GKE-en eta tokiko eragileen parte-hartzea handiagoa izatea.
- Ingurumenaren VII. Ekintza Programaren aplikazioaren alde lan egitea.

Honako azpiprograma hauek ditu programak:

1. Ingurumena, era berean, honako lehentasun-arloetan banatuta:
 - Ingurumena eta baliabideen erabileran eraginkortasuna.
 - Natura eta biodibertsitatea.
 - Ingurumen arloko gobernantza eta informazioa.
2. Klimaren arloko ekintza, lehentasuna arlo hauei emanda:
 - Klima-aldaketa arintzea
 - Klima aldaketara egokitzea.
 - Klimaren inguruko gobernantza eta informazioa.

[***\(Informazio gehiago\)***](#)

GIZA ESKUBIDEAK, BERDINTASUNA ETA HERRITARRAK programa, 2014-2020

Europako Batzordea. Justizia, Askatasuna eta Segurtasuna Zuzendaritza Nagusia

Giza Eskubideak eta Herritarrak programaren helburua pertsonen arteko berdintasuna eta pertsonen eskubideak eraginkortasunez sustatu, babestu eta gauzatuko dituen espazio bat garatzen laguntzea da.

Honako ekintza mota hauek finantzatzen dira, besteak beste:

- Analisi-jarduerak, adibidez, datu-bilketak eta estatistikak, metodologia komunak garatzea eta, hala dagokionean, erreferentziazko adierazle edo parametro komunak, azterlanak, ikerketak, analisiak eta inkestak ere garatzea; ebaluazioak; gidak, txostenak eta hezkuntzarako materiala prestatzea eta argitaratzea; tailerrak, mintegiak, adituen bilerak eta hitzaldiak.
- Prestakuntza-jarduerak; adibidez, langileen trukea, tailerrak, mintegiak, prestatzaileentzako prestakuntza eta lineako prestakuntzarako edo bestelako prestakuntzarako tresnak garatzea.
- Elkarrengandik ikastea, elkarlana, sentsibilizaziorako eta hedapenerako jarduerak; adibidez, jardunbide egokiak, ikuspegi eta esperientzia berritzaileak identifikatzea eta trukatzea; homologoek berrikuspenak antolatzea eta elkarrengandik ikastea; hitzaldia, mintegiak, komunikabideetako kanpainak antolatzea; informazio-kanpainak...
- Egiten dituzten jarduerekin programaren helburuak lortzen laguntzen duten eragile nagusiei laguntzea.

[\(Informazio gehiago\)](#)

EUROPA HERRITARRENTZAT programa, 2014-2020

Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia

Programaren helburua Europar Batasuna herritarrei gerturatzea da; zehazki esanda, herritarrek Batasuna, haren historia eta aniztasuna uler dezaten laguntzea, Europako herritartasuna sustatzea eta herritarrek parte hartzeko eta parte-hartze demokratikorako baldintzak hobetzea.

Hiru kapitulu ditu programak:

- Europaren memoria historikoa. Batasunaren memoria historikoaren, historiaren eta balio komunen eta xedearen inguruan sentsibilizatzea.
- Konpromiso demokratikoa eta herritarren parte-hartzea. Herritarrek Europar Batasunean egiten duten parte-hartze demokratikoa eta zibikoa sustatzea. Hona hemen kapitulu honetako neurriak: herrien senidetzea; hirien sareak; gizarte zibilaren proiektuak.
- Proiektuetako emaitzak aztertze, hedatzeko eta erabiltzeko ekintza horizontalak. Ekintza horizontal baten bidez osatzen dira bi kapituluak. Hemen sartzen dira proiektuetako emaitzak balioztatze, aztertze, hedatzeko eta erabiltzeko jarduerak.

[\(Informazio gehiago\)](#)

JUSTIZIA programa, 2014-2020

Europako Batzordea. Justizia, Askatasuna eta Segurtasuna Zuzendaritza Nagusia

Programaren helburua Justiziaren Europako Espazioa garatzen laguntzea da, elkarrekiko aitortzan eta konfiantzan oinarrituta, bereziki arlo zibilean eta zigor arloan lankidetzak judizialak sustatuz.

Horretarako, honako helburu espezifiko hauek hartuko dira aintzat:

- arlo zibilean eta zigor arloan lankidetzak judizialak bideratzea eta babestea.
- prestakuntza judiziala babestea eta sustatzea, terminologia juridikoaren inguruko hizkuntza-prestakuntza barne, kultura juridiko eta judizial komuna sustatze aldera.
- denen justiziara sarbide eraginkorra izateko lan egitea; hor sartzen da delituen biktima direnen eskubideak sustatzea eta babestea eta defentsarako eskubideak ere defendatzea.
- drogei lotuta lankidetzak judizialari lotutako ekimenak babestea; baita delinkuentziaren prebentzioari lotutako alderdiak ere.

[\(Informazio gehiago\)](#)

KONTSUMITZAILEAK programa 2014-2020

Europako Batzordea. Osasuna eta Kontsumitzaileen Babesa Zuzendaritza Nagusia

Programaren helburu orokorra kontsumitzaileek babes maila handia dutela bermatzea eta kontsumitzaileak, hazkuntza inteligente, jasangarri eta integratzaileko estrategia orokorraren esparruan barmeko merkatuaren erdian kokatzea da.

Programak, xede hori lortzeko, kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta interes juridiko eta ekonomikoak babestuko ditu; baita kontsumitzaileek informazioa eta heziketa jasotzeko eta haien interesak zaintzeko helburuarekin antolatzeko duten eskubidea sustatu ere, interes horiek beste jarduera-eremu batzuetan txertatzen lagunduz.

Ekintzak:

- Segurtasuna
- Informazioa eta heziketa kontsumitzaileei eta laguntza kontsumitzaileen erakundeei
- Eskubideak eta erreklamazioetarako bideak
- Aplikazioa

[\(Informazio gehiago\)](#)

OSASUNA programa, 2014-2020

Europako Batzordea. Osasuna eta Kontsumitzaileen Babesa Zuzendaritza Nagusia

Programaren helburu nagusiak estatu kideen politikak osatzea eta babestea eta politika horiei balio erantsi bat gehitzea da, hala, osasuna sustatuz, Batasuneko herritarren osasuna hobetzeko eta osasun arloan dauden berdintasun-faltak murrizteko. Horretarako, osasungintza berrikuntza sustatzen du, osasun-sistemen jasangarritasuna handituz eta herritarrak mugaz gaindiko mehatxu larriek osasunari sortzen dizkioten arriskuetatik babestuz.

2014-2020 aldirako Osasuna programaren aurrekontua 449,4 milioi eurokoa da.

Ekintzak:

- Osasuna sustatzea, gaixotasuna prebenitzea eta bizi-estilo osasungarria sustatzen dituzten inguruneak sustatzea
- Batasuneko herritarrak osasun arloan dauden mugaz gaindiko mehatxu larrietatik babestea
- Osasun sistema berritzaile, eraginkor eta jasangarriak izateko ekarpena egitea
- Batasuneko herritarrei osasun-laguntza hobea eta seguruagoa jasotzen laguntzea

Programa hau urteko zenbait lan-programak osatzen dute eta horietan zehazten dira EB 282/2014 Erregelamenduan ezarritako lehentasunezko arloetako ekintzak. Hori oinarri hartuta, Kontsumitzaile, Osasun eta Elikaduraren Agentzia Exekutiboak proposamen-deialdiak antolatzen ditu urtero, hiru eremu hauetan:

- Praktika hobek ezartzea: arreta integratua hedatzea
- Euriid Collaboration (estatu-kideei laguntza)
- Orpha kodeen proiektuak

Diru-laguntzak legez eraturako erakundeek jaso ahal izango dituzte; hor sartzen dira agintari publikoak eta sektore publikoko organoak eta, bereziki, ikerketa eta osasun arloko erakundeak, unibertsitatek, goi mailako irakaskuntza-zentroak eta gobernuz kanpoko erakundeak.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa (GEEF), 2014-2020.

Europako Batzordea. Enplegua, Gizarte Gaiak eta Gizarteratzea Zuzendaritza Nagusia

Funts honen bidez lagundu egiten zaie mundu mailako merkataritzaren ildoetan globalizazioagatik edo munduko ekonomia- eta finantza-krisiagatik izandako egiturazko aldaketa handien ondorioz lana galdu duten langileei (adibidez, enpresa handiak ixtearen edo ekoizpena EBtik kanpora eramatearen ondorioz lanik gabe daudenei).

Oro har, enpresa bakarrean 500 langiletik gora (hornitzaileak eta produktuen eraldatzaileak barne) kaleratzen badira bakarrik esku har dezake GEEFk, edo bestela, sektore jakin bateko langile kopuru handi batek eskualde batean edo inguruko zenbait eskualdetan lana galtzen badute.

GEEFren esku-hartzeak nazio eta eskualdeetako administrazioen kudeaketapean egiten dira. Proiektu bakoitza bi urtekoa da.

GEEFk unean uneko laguntza indibidualak ematen dizkie langileei, iraupen mugatukoak.

Honako neurri hauek eta antzekoak dituzten proiektuak kofinantzatzen dira:

- lana bilatzeko laguntza
- orientazio profesionala
- hezkuntza, prestakuntza eta birziklatze profesionala
- banan-banako tutoretza eta aholkularitza
- ekintzailetza eta enpresak sortzea.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Egoera Zailenean dauden Pertsonen Laguntzeko Europako Funtsa, 2014-2020.

Europako Batzordea. Enplegua, Gizarte Gaiak eta Gizarteratzea Zuzendaritza Nagusia

Funts honen helburua Europar Batasunean kohesio soziala sustatzea, gizarteratzea indartzea eta pobrezia desagerraraztea da. Funts honek osatu egiten ditu Egiturazko Funtsak eta horrek lagundu egiten du pobrezia alderdi okerrenak arintzeko helburu espezifikoak lortzeko bidean, egoera zailenean dauden pertsonen finantzarioa ez den laguntza eskainiz; adibidez, elikagaiak eta oinarriko laguntza materiala eskainiz eta gizarteratzeko jarduerak antolatuz egoera zailenean dauden pertsonen laguntza eskaintzeko; besteak beste, egoera zailenean dauden gazteei zuzendutakoak.

Estatu kide bakoitzak bere Programa Operatiboa prestatu behar du eta hor zehaztu behar dira egoera zailenean dauden pertsonen zuzendutako jarduerak; estatu kideek aukeratutako elkartutako elkarten bidez elikagaiak edo oinarriko laguntza eskaintzeko jarduerak, hain zuzen.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Asilo, Migrazio eta Integrazioarako Europako Funtsa, 2014-2020

Europako Batzordea. Barneko Gaiak Zuzendaritza Nagusia

Asilo, Migrazio eta Integrazioarako Funtsaren helburua Europar Batasunean dauden migrazio-fluxuak eraginkortasunez kudeatzen laguntzea da, eta Europako gainerako barne politiketek bezala, askatasunean, segurtasunean eta justizian oinarritutako espazio bat sortzen laguntzea.

Funtsak hiru azpifunts ditu, populazio migratzaileko talde espezifikoetara zuzendutakoak:

- Errefuxiatuentzako Europako Funtsa (EEF): hirugarren herrialdeetako herritartasuna dutenei edo Genevako Konbentzioari lotutako estatutua duten herrigabeei eta estatu kide batean errefuxiatu gisa bizitzeko baimena dutenei edo estatu-kide batean birfinkatu direnei.
- Integrazioarako Europako Funtsa (IEF): Batasunera legez migratzeko aukera bideratzea eta migratzaileak gizarteratzeko hobeto prestatzea.
- Itzulerarako Europako Funtsa (IEF): laguntza EBn egonaldia egiteko edo bizitzeko eskubidea duten (edo eskuratzeko zain daudenei) edo nazioarteko babesa duten hirugarren herrialdeetako herritarretatik borondatezko itzuleraren aukera aukeratu dutenei.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Demokrazia eta Giza Eskubideetarako Finantza Tresna (DGEFT), 2014-2020

Europako Batzordea. Lankidetzeta eta Garapena Zuzendaritza Nagusia

Finantza-tresna honen helburua demokrazia eta zuzenbidezko estatua garatzen eta indartzen laguntzea, baita giza eskubideak eta oinarriko askatasunak garatzen eta indartzen laguntzea ere.

Honako hauek dira finantzaketa jaso dezaketek ekintzak:

- 1. helburua: Giza eskubideak eta haiek babesten dituztenak babestea pertsona horiek arriskuan egoten diren egoeretan.
- 2. helburua: Batasunak giza eskubideen arloan dituen beste lehentasun batzuen alde lan egitea.
- 3. helburua: Demokrazia babestea.
- 4. helburua: Batasunak hauteskundeetan behaketak egitea.
- 5. helburua: Funtsezko eragile eta prozesu espezifikoei laguntza ematea. Hor sartzen dira giza eskubideen arloko nazioarteko eta eskualde mailako tresnak eta mekanismoak.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Garapenerako Lankidetzaren Finantzatzeko Tresna, 2014-2020

Europako Batzordea. Lankidetzaren eta Garapenerako Zuzendaritza Nagusia

Finantza-tresna honen helburu nagusia pobrezia murriztea eta desagerraraztea da, horretarako, garapenerako ekonomikoa, soziala eta ingurumen arlokoa, jasagarria sustatuz eta horrez gain, demokrazia, zuzenbidezko estatusa, gobernantza ona, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbidea sendotuz eta babestuz.

Honako hauek dira finantzaketa jasotzeko ekintzak:

- Programa geografikoak, honako herrialde hauetan garapenerako lankidetzaren finantzaketa bideratutakoak: Latinoamerika, Hego Asia, Asia iparraldea eta hego-ekialdekoa, Erdialdeko Asia eta beste herrialde batzuk.
- Gaikako programak, programa geografikoen mendekoak, irizpide geografikoen arabera zehaztu gabeko herrialde multzo bati eragingo dien gai edo arlo zehatz baten ingurukoak; baita kide diren herrialdeetako eskualde edo taldeei zuzendutako lankidetzako jardueren ingurukoak ere, edo oinarri geografiko zehatzik gabeko nazioarteko jardueren bat.

Lankidetzaren finantzaketa honako arlo hauetan gauzatuko da: a) Munduko erronka eta ondasun publikoen programa eta b) Gizarte zibilaren eta tokiko jardueren Antolaketa Programa

- Programa panafrikarra: Afrikaren eta, besteak beste, EBren arteko elkartzeko estrategikoa babesteko, honako arlo hauetan: bakea eta segurtasuna, gobernantza demokratikoa eta giza eskubideak, merkataritza, eskualdeen integrazioa eta azpiegiturak, energia, klima-aldaketa eta ingurumena, migrazioak, mugikortasuna eta enplegua eta abar.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Auzo-politikarako Europako Tresna, 2014-2020

Europako Batzordea. Kanpo Harremanetako Zuzendaritza Nagusia

Tresna honen helburua Batasuna eta kide diren herrialdeak kide izango dituen espazio bat lortzeko bidean urratsak egitea da; partekatutako oparotasuna eta auzotasun ona izango duen espazioa, hain zuzen. Horretarako, harreman berezia behar da, honako balio hauetan oinarrituta: lankidetzak, bakea, segurtasuna, elkarrekiko erantzukizuna eta demokraziari, zuzenbidezko estatuari eta giza eskubideen errespetuari lotutako balio unibertsalekiko konpromisoa.

Laguntzaren helburua EBren eta kide diren herrialdeen artean lankidetzak politiko indartua, sustrai sendoko demokrazia jasangarria, pixkanakako integrazio ekonomikoa eta gizarte zibilekin elkartze indartua sustatzea da eta, bereziki, elkarlanerako akordioak eta elkartze-akordioak edo lehendik dauden akordioak edo sortuko direnak aplikatzea; baita elkarrekin adostutako ekintza-planak edo dokumentu baliokideak aplikatzea ere.

Kide diren herrialdeak: Aljeria, Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Egipto, Georgia, Israel, Jordania, Libano, Libia, Maroko, Moldavia, Maroko, Palestinako lurralde okupatuak, Siria, Tunisia eta Ukraina.

Honako hauek dira finantzaketa jasozko ekintzak:

- Kide de herrialde bakoitzeko laguntza dakarten alde biko programak.
- Kide diren herrialde guztiek edo batzuek dituzten erronei erantzuteko zenbait urteko programak (Errusiako Federazioak parte hartu ahal izango du).
- Mugaz gaindiko lankidetzarako programak, batetik, estatu kide bat edo batzuk aritzeko eta, bestetik, herrialde kide bat edo gehiago eta/edo Errusiako Federazioa.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Urban Innovative Actions (UIA).

Europako Batzordea. Regio Zuzendaritza Nagusia

Helburua hirietako hiri-garapen jasangarriari lotutako arazoentzako irtenbide berritzaileak identifikatzea eta probatzea da, hala, irtenbide horiek Europar Batasun osorako jardunbide egoki bihur daitezzen. Horretarako, tokiko hiri-agintariei zuzendutako proiektuen deialdi bat argitaratuko da urtero.

Urban Innovative Actions ekimena EGEFek finantzatzen du. Hori dela eta, hautatutako proiektuek diruz lagun daitezkeen kostuen % 80 arteko finantzaketa jaso ahal izango dute. Proiektu horiek, gehienez, 3 urtean gauzatu behar dira.

UIA Europako Batzordeko Eskualde eta Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du eta Nord-Pas-de-Calais (Frantzia) eskualdeak gauzatu du. Nolanahi ere, Europa osoko hirietako proiektuentzako zabalik dago deialdia.

UIA proiektuak urtero hautatzen dituzte UIAren 2014-2020ko programan ezarritako gai guztien artean hautatutako gai baten edo batzuen inguruan. Hirien garapenari ekarpenen bat egiten diotenak izaten dira: Enplegua eta trebetasuna, hirietako pobrezia (umeen pobrezia, deprimututako auzoak eta "etxerik gabeak"), eraikuntza jasangarria, migratzaileen eta errefuxiatuen integrazioa, luraren erabilera jasangarria eta naturan oinarritutako irtenbideak, ekonomia zirkularra, klimara egokitzea, trantsizio energetikoa (energiaren eraginkortasuna eta energia berriztagarriko sistemak), hiriko mugikortasun jasangarria, airearen kalitatea, trantsizio digitala (zerbitzu digitalak, *datamining*...) eta berrikuntza eta erantzukizun publikoa.

Proiektu bakoitzak EGEFek emandako 5 milioi euro arteko finantzaketa jaso dezake. Ez da gutxieneko mugarik ezarri. 2016ko deialdiak 80 milioi euroko aurrekontua izan du eta 2017koak 50 milioi eurokoa.

50.000 biztanle baino gutxiago dituen tokiko administrazio-unitate bateko hiriko edozein agintaritzak aurkeztu ahal izango ditu proiektuak; era berean, guztira gutxienez 50.000 biztanle biltzen dituzten tokiko administrazio-unitateetako hiriko agintaritzen edozein elkarte edo taldek ere aurkeztu ahal izango ditu proiektuak.

[***\(Informazio gehiago\)***](#)

Egiturazko funtsak eta Inbertsio-funtsak

Egiturazko Funtsak eta Inbertsio Funtsak Programa Operatibo (PO) izeneko programazio-dokumentuen bidez kudeatzen dira.

Programa Operatiboek Esparru Estrategiko Komuna eta Elkartze Akordioa gauzatzen dituzte eta estatu kideek maila zentrallean, eskualde edo tokiko mailan egin beharreko jardueren eta ekintzen ildoak zehazten dituzte. Ekintza eta jarduera horiek Funtz bakoitzaren helburuak lortzen laguntzen dute eta, beraz, EB 2020 Estrategiaren helburuak betetzen ere bai: hazkunde inteligentea, jasangarria eta integratzailea.

Europako Batzardeak onartu behar izaten ditu Programa Operatiboak eta honako elementu hauek izaten dituzte:

- Programaren lehenetsunezko ardatzak
- Lehenetsunezko ardatz bakoitzerako aurrez ikusitako neurrien deskribapena
- Eta lehenetsunezko ardatz eta urte bakoitzerako finantzaketa-plana, aurrez ikusitako finantzaketaren zenbatekoarekin

Programa Operatibo bakoitza aplikatzeko, honako kontu/prozedura hauek jarri behar dira agian: Kudeaketarako autoritate bat izendatu behar da, PO kudeatzeaz arduratuko dena; komunitateko laguntzak erabiltzeko prozesua; jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistemak; ordainduko duen autoritatea izendatzea eta finantza-fluxuen mobilizaziorako eta zirkulaziorako prozedurak zehaztea; eta arauak eta prozedura espezifikoak, besteak beste Jarraipen Batzardea eratzea.

Honelakoak izan daitezke Programa Operatiboak: Eskualdeko Programa Operatiboak, erkidego/eskualde mailako administrazio bati bakarrik eragiten diotenak; eta Eskualde anitzeko Programa Operatiboak, horizontalak, nazio mailako jarduerak abian jarri eta zenbait autonomia-erkidego/eskualdetan gauzatzen direnak.

Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF), 2014-2020.

Europako Batzordea. Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusia.

Europar Batasunaren kohesio-politikaren parte da EGEF. Garapenari, produktibitateari eta enpleguari lotuta dituen berdintasun-faltak murrizteko, Europar Batasunak duen finantzaketa-iturri nagusia da. Helburua eskualdeetako desoreka nagusiak murriztea da eta horretarako, eskualdeetako ekonomien garapena eta egitura-zko doikuntza babesten dira; gainbehera datozen industria-eskualdeen eta atzean gelditutako eskualdeen birmoldaketa barne.

EGEFek eskualde mailako politikaren hiru helburu berrietan esku har dezake:

- Bateratasuna;
- Eskualde mailako lehiakortasuna eta enplegua;
- Europako lurraldeen arteko lankidetzeta.

Lehentasun horietarako bideratutako EGEFen baliabideak eskualde bakoitzaren kategoriaren arabera izango dira.

- garapenean aurreratuen dauden eskualdeetan, gutxienez funtsen % 80 lehentasun horietatik gutxienez bitarako erabili behar dira,
- trantsizioan diren eskualdeetan, funtsen % 60 da gutxieneko muga,
- garapen maila txikieneko eskualdeetan, gutxieneko muga % 50 da.

Bateratasuna: "Bateratasuna" helburuaren eskualdeetan, EGEFen esku-hartzea egitura ekonomikoak modernizatzeko eta dibertsifikatzeko izaten da, baita enplegu jasangarriak zaintzeko edo sortzeko ere. Saikapenean helburu horri lotuta dauden Europako eskualdeek EGEF laguntza jasotzen dute. Nazio eta eskualdeetako agintariak haien Programa Operatiboak ezartzen dituzte eta horrela hautatzen dituzte finantzatu beharreko proiektuak.

Eskualde mailako lehiakortasuna eta enplegua: Aurrerapen maila altueneko estatuei eta eskualdeei bideratutakoa da helburu hau. Bateratasunerakoetan bezala, helburu hauek lortzeko ere nazio eta eskualdeetako agintariak haien Programa Operatiboak ezartzen dituzte eta horrela hautatzen dituzte finantzatu beharreko proiektuak.

Europako lurraldeen arteko lankidetzeta: Kohesio-politikaren helburu honek nazio, eskualde eta tokiko eragileen artean elkarrekin ekintzak ezartzeko eta esperientziak trukatzeko esparru bat eskaintzen du. Helburu honetan hiru motatako programak bereizten dira: mugaz gaindiko lankidetzeta, nazioz gaindikoa eta eskualdeen artekoa. Horien bidez, EBren integrazioa eta lurralde-kohesioa handitzea lortu behar da.

[**\(Informazio gehiago\)**](#)

EGEF, Lurraldeen arteko Lankidetzza, 2014-2020

Europako Batzordea. Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusia.

Europako Lurraldeen arteko Lankidetzza (ELL) Europako Batzordearen kohesio-politikaren bi helburuetako bat da eta esparru bat eskaintzen du estatu kideetako nazio, eskualde eta tokiko mailetakoa eragileen artean elkarrekin ekintzak ezartzeko eta politikak trukatzeko. Europako Lurraldeen arteko Lankidetzaren (ELL) helburu nagusia Batasunean, hura osorik hartuta, ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen garapena sustatzea da.

Europako Lurraldeen arteko Lankidetzza Eskualde Garapenerako Europako Funtzak (EGEF) finantzatutako INTERREG programen bidez gauzatzen da.

INTERREG programak lankidetzarako hiru ardatz biltzen ditu:

1. Elkarren alboko eskualdeen artean mugaz gaindiko lankidetzarako programak. Helburua da eskualde mailako garapen integratua sustatzea bi estatu kideetako edo gehiagotako eskualde mugakideen (lurretik edo itsasotik) artean edo gutxienez estatu kide bateko eskualde mugakideen eta hirugarren herrialde batean Batasunaren kanpoko mugetan. Batasunetik kanpoko finantza-tresnen esparruko programetan sartzan ez direnak izan behar dute. Mugaz gaindiko lankidetzza INTERREG A programaren bidez ezartzen da. Hona hemen programa horren azpiko lurralde-programa nabarmenenak: POCTEP (Espainia eta Portugal) eta POCTEFA (Espainia, Frantzia eta Andorra)
2. Nazioz gaindiko lankidetzarako programak, nazio, eskualde eta tokiko mailako agintariak partaide direla eta itsasoko mugaz gaindiko lankidetzza ere sartuta mugaz gaindiko lankidetzak hartzen ez dituen kasuetan, hala, lurralde horietan lurralde-integrazio handiagoa lortzeko eta Batasunean lurralde-kohesioa sustatzeko. Nazioz gaindiko lankidetzza INTERREG B programaren bidez ezartzen da. Hona hemen programa horren azpiko lurralde-programa nabarmenenak: Espazio Atlantikoa (Espainia, Frantzia, Irlanda, Portugal eta Erresuma Batuko eskualdeak), SUDOE (Espainia, Frantzia eta Portugal), MED (Zipre, Espainia, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Portugal, Erresuma Batua, Eslovenia).
3. Eskualdeen arteko lankidetzarako programak kohesio-politikaren eraginkortasuna indartzeko eta Batasuneko kideen artean jardunbide egokien identifikazioari eta hedapenari lotuta gaikako helburuen inguruko esperientziak trukatzeko laguntzeko. Jardunbide horiek programa operatiboetara helaraztea da helburua. Eskualdeen arteko lankidetzza INTERREG C programaren bidez ezartzen da. Programa honek Programa Operatibo bakarra du Europar Batasun osorako (INTERREG EUROPE) eta trukerako hiru sare (INTERACT, ESPON eta URBACT).

[**\(Informazio gehiago\)**](#)

POCTEFA 2014-2020 (Mugaz gaindiko Lankidetzarako Programa)

Espainia - Frantzia - Andorra.

INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren akronimoa da POCTEFA 2014-2020. Lurraldeen arteko lankidetzarako Europako programa bat da, hiru herrialdeen arteko mugako lurraldean garapen jasangarria sustatzeko.

POCTEFAk mugaz gaindiko lankidetzarako finantzaketan parte hartzen du. Pirinioen bi aldeetako eta itsasertzeko eremuetako eragileek –Programan parte hartzen dutenek– diseinatutakoak eta kudeatutakoak izaten dira proiektu horiek eta lurraldearen garapen inteligente, jasangarri eta integratzailearen alde egiten dute. Pirinioetako Lan Komunitateak (PLK) kudeatzen du Programa.

POCTEFA 2014-2020 proiektuen deialdiak eginez antolatzen da. Deialdietan, lankidetzarako eremuari lotutako mugaz gaindiko proiektuak garatzeko interesa duten lurraldeko eragileek hautagaitza aurkeztu behar izaten dute Programara. Hautagaitzak aurkeztu ondoren, Programaren arduradunek lurraldeko eskakizunei begira egokiak diren proiektuak, proposamenak aurkezteko irizpideak betetzen dituztenak, aukeratzen dituzte. Proiektu horiek programatu egiten dira EGEFen finantzaketa jasotzeko aukera lortzen dute.

Programa lankidetzaren eremuko sektore publikoko eta pribatuko eragileei dago zuzenduta. Programatutako proiektu bateko kide bihurtzen direnean, EGEFen finantzaketa jasoko duen proiektu bateko kide bihurtzen direnean, alegia, onuradun esaten zaie. Onuradun izan daitezke, beste erakunde edo talde batzuen artean, erakunde publikoak, enpresak, garapen-agentziak, taldeak, elkarteak, fundazioak, merkataritza-ganberak edo ikastetxeak.

[\(Informazio gehiago\)](#)

POCTEP 2014-2020 (Mugaz gaindiko Lankidetzarako Programa)

Espainia – Portugal.

INTERREG A Espainia-Portugal 2014-2020 Mugaz gaindiko Lankidetzarako Programak Espainiaren eta Portugalen mugako eremuen garapena sustatzen du.

POCTEP honek aukera ematen du 1989tik azpiegitura materialei lotutako proiektuak gauzatu garatu izan diren lankidetzarako sare zabalak aprobetxatzeko. Pixkanaka, beste sektore batzuek ere bat egin dute; hala nola turismoak, gizarte-zerbitzuek, ingurumenak, berrikuntza teknologikoak, osasunak, hezkuntzak eta kulturak.

Espainia-Portugal Mugaz gaindiko Espazioa bi herrialdeetako 37 NUTS III-k osatzen dute eta aurreko programazio-aldian ezarritako eremuen koherentzia eta jarraitutasuna ziurtatzen dute:

- Espainia: Ourense, Pontevedra, Zamora, Salamanca, Cáceres, Badajoz, Huelva, Coruña, Lugo, Ávila, León, Valladolid, Cádiz, Kordoba eta Sevilla.
- Portugal: Alto Minho, Cávado, Terras Tras-os-Montes, Douro, Beiras e Serra de Estela, Beira Baixa, Alto Alentejo, Alentejo Central, Baixo Alentejo, Algarve, Ave, Alto Tâmega, Tâmega e Sousa, Área Metropolitana do Porto, Viseu Dão-Lafões, Região de Coimbra, Médio Tejo, Região de Aveiro, Região de Leiria, Oeste eta Alentejo Litoral.

POCTEP urtean zenbait deialdi eginda antolatzen da (datak programaren webgunean argitaratzen dira).

[\(Informazio gehiago\)](#)

Eremu Atlantikoa, 2014-2020 (Nazioz gairidiko Lankidetzarako Programa)

Espainiako, Frantziako, Irlandako, Portugalgo eta Erresuma Batuko eskualdeak

Eremu Atlantikoa INTERREG B 2014-2020 Programak ekarpena egingo dio Europa 2020 estrategiari hazkunde inteligente, jasangarri eta integratzailea lortzeko eta ekonomian, gizartean eta lurraldean kohesioa eskuratzeko, horretarako, Frantziako, Irlandako, Portugalgo, Espainiako eta Erresuma Batuko eskualde atlantikoaren arteko lankidetzak-jarduerak sustatuta.

Helburu nagusia berrikuntzaren, baliabideen eraginkortasunaren, ingurumenaren eta aktibo kulturalen eremuetako eskualde mailako erronkei erantzuteko irtenbideak praktikan jartzea da; Eremu Atlantikoaren lurraldean bizi-kalitate hobea sortzeko gai diren irtenbideak, hain zuzen.

37 eskualde daude, guztira, programan sartuta:

- Frantzia: Haute-Normandie, Basse-Normandie, Pays-de-la Loire, Bretagne, Poitou-Charentes, Aquitaine
- Irlanda: Border, Midland eta Western, outhern eta Eastern
- Portugal: Iparraldea, Algarve, Erdialdea, Lisboa, Alentejo, Açores, Madeira
- Espainia: Galizia, Asturiako Printzerria, Kantabria, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Andaluzi (Huelva, Cádiz eta Sevilla), Kanariar Uharteak
- Erresuma Batua: Cumbria, Cheshire, Greater anchester, Lancashire, Merseyside, Gloucestershire, Wiltshire and North Somerset, Dorset and Somerset, Cornwall and Isles of Scilly, Devon, West Wales and The Valleys, East Wales, South Western Scotland, Highlands and Islands, Northern Ireland

Programak urtean proiektuen deialdi bat egingo du 2020ra arte, betiere, horretarako behar adinako funtsik badago. Deialdiei buruzko informazioa Programaren webgunean argitaratuko da.

[\(Informazio gehiago\)](#)

SUDOE, 2014-2020 (Nazioz gaindiko Lankidetzarako Programa)

SUDOE eskualdeak (Espainia, Frantzia eta Portugal)

SUDOE programak (Interreg V-B Lankidetzarako Programa, Europa hego-mendebaldea) eskualdeen garapena sustatzen du Europaren hego-mendebaldean, Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF) bidez nazioz gaindiko proiektuak finantzatuz.

Programak, 2014-2020 aldian, Europako hego-mendebaldeko herrialdeetako eskualdeetako erakundeen aliantzek osatutako proiektuak finantzatuko ditu eta horretarako, 141 milioi euroko aurrekontua izango du.

Programak nazioz gaindiko lankidetzaren sustatzen du Europako hego-mendebaldeko eskualdeetan komunak diren arazoak konpontzeko; adibidez, ikerketan eta garapenean inbertsio txikia egitea, lehiakortasun txikia enpresa txiki eta ertainetan eta klima aldaketaren eta ingurumen-arriskuen eraginpean egotea.

Programak finantzatutako proiektuak antola ditzatenak erakundeak publikoak edo pribatuak izan daitezke (enpresa handiak izan ezik), honako eskualde hauetakoak:

- Espainia: autonomia-erkidego guztiak (Kanariak izan ezik) eta Ceuta eta Melilla erkidego-hiriak.
- Frantzia hego-mendebaldeko sei eskualdeak:

Akitania, Auvernia, Languedoc-Rosellón, Limosín, Midi-Pyrénées eta Poitou-Charentes.

- Portugal: eskualde kontinental guztiak (beraz, Madeira eta Azoreak dira salbuespenak).
- Erresuma Batua (Gibraltar)
- Andorrako Printzerria

Proiektuek SUDOE programako finantzaketa jaso dezakete 2014-2020 aldian, Programak zabalduetako deialdiren batera aurkeztuta. Programak proiektuentzako bost deialdi zabalduko ditu eta bakoitzak bi fase izango ditu: lehena sinplifikatua eta bestea osoa.

[***\(Informazio gehiago\)***](#)

MED, 2014-2020 (Nazioz gairidiko Lankidetzarako Programa)

Zipre, Espainia, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Portugal, Erresuma Batua, Eslovenia, Madeira-Azoreak-Kanariak.

MED INTERREG B Programaren helburu orokorra Mediterraneoaren arloan hazkunde jasangarria sustatzea da eta, horretarako, honako hauen alde egitea: praktika eta kontzeptu berritzaileak (teknologiak, gobernantza-moduak, zerbitzu berritzaileak eta abar), baliabideen arazoizko erabilera (energia, ura, itsasoko baliabideak) eta gizarte-integrazioa lankidetzarako ikuspegi integratuak eta lurralde bakoitzera egokitutakoak erabiliz.

Programak eskualde mediterraneoan arteko lankidetzara sustatzen du EBko 10 estatu kidetan: Zipre, Kroazia, Eslovenia, Espainia, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Portugal eta Erresuma Batua (Gibraltar) eta 3 herrialde hautagai, adibidez, Albania, Bosnia, eta Montenegro.

Kudeaketako Agintari Bakarrak (Provence-Alpes-Côte d'Azur) kudeatzen du programa eta bera arduratzen da programa operazionala abian jarri eta kudeatzeaz. Unitate honek badu idazkaritza tekniko elkartu bat ere eta Valentzian eta Tesalonikan ditu bulegoak. Parte hartzen duen estatu kide bakoitzean Programarekin lotutako harremanetarako puntuak eta informazioa emateko lekuak daude.

Aldizka, deialdiak antolatzen ditu Programak nazioz gairidiko lankidetzarako hitzarmenek osatutako proiektuetarako, Programaren lehentasunezko helburuak lortzera bideratutako deialdiak, alegia.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Eskualdeen arteko lankidetzarako programak eta EGEF sareak

Eskualdeen arteko Lankidetzak, Batzordearena, Programa Operatibo baten eta ezagutza trukatzeko 3 sareren bidez gauzatzen da.

- INTERREG EUROPE
- INTERACT sarea
- ESPON sarea
- URBACT sarea

[\(Informazio gehiago\)](#)

INTERREG EUROPE (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa)

INTERREG EUROPE Programak Europaren lurralde osoa hartzen du eta helburu nagusia da eskualdeen garapenerako politiken eraginkortasuna hobetzea eta Europar Batasuna modernizatzen laguntzea, horretarako, ezagutzaren eta jardunbide egokien trukea eginez.

Bi motatako ekintzak babesten ditu programak:

- Esperientzien trukea lurralde-lankidetzarako proiektuen bidez.
- Lehendik dauden politikak hobetzeko plataformetan parte hartzea edo *policy learning* delakoa.

Proiektuen deialdia egiten du programak urtero.

[\(Informazio gehiago\)](#)

INTERACT sarea (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa)

INTERACT sarearen helburu nagusia Europan lurraldeen arteko lankidetzaren arloan proiektuak garatzen dituzten pertsoneri edo erakundeei laguntzea da. Horretarako, babesa ematen da gai zehatz batzuen inguruan mintegiak antolatzeko eta sistematizatu egiten dira dagokion gaiaren inguruko jardunbide egokien adibideak.

Kohesio Politikaren eraginkortasuna indartzeko diseinatutako sarea da eta helburu hori lortzeko, ELLko programen, lankidetzaren eta elementu berritzaileen (Lurralde Lankidetzarako Europako Taldeak, adibidez) kudeaketan jardunbide egokiak identifikatu, transferitu eta trukatzeko dira.

INTERACT elkartzeko gune bat da, ELL programen artean informazioa eta jardunbide egokiak trukatu ahal izateko eta proiektuen emaitzak ikusgarriago izan daitezen ere ematen die programei laguntza.

[\(Informazio gehiago\)](#)

ESPON - European Observation Network for Territorial Development and Cohesion (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa)

ESPON Lurraldeen Garapenerako eta Kohesiorako Europako Behatokia da. Ikerketa-programa bat da eta bildu eta alderatu egiten ditu Europan garapenari eta kohesioari lotuta dauden joerei buruzko datuak. Programak, 2014-2020 aldirako, 53,8 milioi euroko aurrekontua du.

Europako lurraldean lurralde-kohesioa eta garapen orekatua lortzeko helburuari lotutako politikak garatzen laguntzea du xedea. Honako hauek egiten dira:

- informazioa, ebidentziak, analisia eta eszenario alderagarriak erabilgarri izatea lurraldeetako dinamiken inguruan
- lurraldeko potentzialak eta kapitalak agerian jartzea eskualde eta lurralde zabalagoak garatzeko, horrela, Europaren lehiakortasuna, lurraldeen arteko lankidetzeta eta garapen jasangarri eta orekatua sustatuz.

[\(Informazio gehiago\)](#)

URBACT III (Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa)

URBACT trukerako eta ikaskuntzarako Europako programa bat da eta hirien garapen jasangarria eta integratua sustatzen ditu. Europako hiriei, dituzten erronka nagusientzako irtenbide eraginkorrak eta jasangarriak garatzeko bidean, lanean elkarrekin aritzeko esparru bat eskaintzen die eta hala, jardunbide egokiak eta eskuratutako esperientzia partekatzen dituzte eta uztartu egiten dituzte dimentsio ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak.

URBACT III programa lau helburu nagusiren inguruan dago antolatuta:

- Politikak garatzeko gaitasunak:

Hiriek hiri-politika eta praktika jasangarriak modu integratuan eta parte-hartzean oinarrituta kudeatzeko duten gaitasuna hobetzea.

- Politikak diseinatzea:

Hirietan politika eta hiri-praktika jasangarrien diseinuak hobetzea.

- Politikak ezartzea:

Hirietan hiri-estrategia eta ekintza integratuak eta jasangarriak ezartzeko lana hobetzea.

- Ezagutza sortzea eta truketzea:

Maila guztietako profesionalek eta erabakiak hartzeaz arduratzen direnek hirien garapen jasangarriaren alderdi guztiei buruzko ezagutza partekatua eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea, hirien garapen jasangarriari lotutako politikak hobetzeko.

EGEF ekarpenaz gain, partaide diren estatu kideek eta hiriek ekarpen ekonomikoak egiten dizkiote programari. 2014-2020 aldirako URBACT III programaren aurrekontua 96,3 milioi eurokoa da.

URBACT programari aplikagarri zaion EGEF kofinantzaketarako tasa % 75ekoa izaten da gehienez, dirulaguntzak jasotzen dituzten hiriak zer garapen mailatako eskualdeetan dauden aintzat hartuta.

URBACT programa kudeatzeko autoritatea, partaide diren estatu kideek hala izendatuta, Frantziako Commissariat Général à l'Égalité des Territoires (CGET) delakoa da.

Programaren lau helburuak lortzeko, URBACTek hiri-sareak abian jartzea eta garatzea sustatzen du. 3 motatako sareak bereizten ditu programak:

- Ekintza-Plangintza sareak (dituzten erronkei aurre egiteko estrategiak/plangintza zehazteko prozesua abian duten hiriak).
- Ezartzeko sareak (estrategia edo ekintza-plan bat izan eta hura ezarri nahi duten hiriak).
- Transferentzia-sareak (garatzea lortzeko, beste hiri batzuetan garatutako jardunbide egokiak egokitu eta/edo berrerabili nahi dituzten hiriak).

URBACT sareak 6-12 hirirekin osatzen dira eta 30 hilabete inguruko lanerako plangintza izaten dute.

URBACT programak aldizkako deialdiak antolatzen ditu sare mota bakoitzerako.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Europako Gizarte Funtza (EGIF), 2014-2020.

Europako Batzordea. Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusia.

Europar Batasunaren kohesio-politikaren parte da EGIF. EGIF tresnaren bidez, Europak enpleguaren sorrera sustatzen du, pertsonen lanpostu hobea lortzen laguntzen die eta EBko herritar guztientzako lanerako aukera bidezkoagoak bermatzen ditu.

Europako Batzordeak, estatu kideek eta eskualdeek elkarrekin ezartzen dituzte EGIFen lehentasunak eta haiek erabakitzen dute baliabideak zertarako erabiliko diren eta jasota gelditzen da hori Programa Operatiboetan.

Euskal Autonomia Erkidegoak bere Programa Operatiboa du 2014-2020 aldirako.

[\(Informazio gehiago\)](#)

[\(Informazio gehiago\)](#)

Kohesio Funtsa (KF), 2014-2020

Europako Batzordea. Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusia.

Funts honi EGEF eta EGFI aplikatzen zaizkien programaziorako, kudeaketarako eta gainbegiratzeko arauak aplikatzen zaizkio.

2014-2020 aldian, Kohesio Funtsak Bulgaria, Kroazia, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Grezia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Portugal, Txekia eta Errumaniari eman die laguntza.

Kohesio Funtsa honako kategoria hauetako jardueretarako erabiltzen da:

- Europaz gaindiko garraiorako sareak, bereziki EBk Europarentzako intereseko direla identifikatutako lehentasunezko proiektuak. Kohesio Funtsak azpiegituren proiektuak babestuko ditu Europako Interkonexioko Tresnaren esparruan;
- ingurumena: alderdi horretatik, Kohesio Funtsak lagundu egingo die energiarekin edo garraioarekin lotutako proiektuei, betiere, ingurumenari onura nabarmena badakarkie energia-eraginkortasunari, energia berriztagarrien erabilerari, tren-garraioaren garapenari, intermodalitatea indartzeari, garraio publikoa indartzeari eta abarri lotuta.

Kohesio Funtsaren finantza-laguntza etetea erabaki dezake Kontseiluak (gehiengo kualifikatuak hartutako erabakiaren bidez), baldin eta hala erabakitzen badu estatu kide batek gehiegizko defizit publikoa duelako eta egoera konpondu ez duelako edo konpontzeko hartu beharreko neurriak hartu ez dituelako.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF), 2014-2020

Europako Batzordea. Nekazaritza eta Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusia

LGENF da landa-garapen jasangarria babesten duen Nekazaritzako Politika Komunaren (NPK) finantza-tresna. Helburuak nekazaritzaren eta basogintzaren lehiakortasuna, eta ingurumena eta landa-inguruneko bizitzaren kalitatea hobetzea, eta jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa bultzatzea dira.

LGENF funtsak laguntza garrantzitsua eskaintzen die landa-inguruneko kolektibo zaurgarriari, landa inguruneko emakumeei ekintzaitan laguntzeko proiektuei, desgaitasunak dituzten pertsonen egokitutako garraioari eta gazteentzako enplegu-aukerak sortzeari.

LEADER ekimena LGENF funtsak kudeatzeko ikuspegi bat da. Tokiko komunitateek gauzatutako garapenerako estrategiak erabiltzen dira kudeaketa horretan. LEADER deialdi espezifikoak Tokiko Ekintza Taldeek kudeatzen dituzte eskualde mailan. Talde horiek eragile publiko, ekonomiko eta sozialek osatutakoak izaten dira.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtza (FEMP), 2014-2020

Europako Batzordea. Arrantzako Zuzendaritza Nagusia

Arrantzako Europako Funtzak (FEMP) arrantzaren eta akuikulturaren sektore guztiak lotutako proiektuak finantzatzen ditu; baita merkatu berriak identifikatzera eta sustatzera bideratutako neurrien aplikazioa ere. Era berean, finantzaketa eskaintzen du arrantza-ontzidien modernizatzeko eta gehiegizko arrantza-gaitasuna desagerrarazteko.

[\(Informazio gehiago\)](#)

EUROPAKO FINANTZAKETA LORTZEKO BESTE TRESNA BATZUK

Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsa (EFSI)

Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsa (IEEF) Europarako Inbertsio Planaren elementu nagusia da. Europar Batasunean epe luzerako hazkunde ekonomikoa eta lehiakortasuna sustatzea du helburua. Funts honen helburua finantzaketa publikoa mugiaraztea da, bereziki EBren aurrekontuaren kargurako finantzaketa, inbertsio pribatua EBn abiarazitako askotariko proiektuetara erakartzeko; adibidez, azpiegiturretan, ikerketan eta berrikuntzan, hezkuntzan, osasunean eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietan.

Europako Inbertsio Bankuak (EIB) kudeatzen duen kontu independente bat da Funts hau. EIBren bidez hedatzen diren IEEFren baliabideak eskuratzeko, proiektuek EIBk egiten duen "due diligence" prozesutik igaro behar dute eta prozesu horren bidez egiaztatzen da proiektua EIBren finantzaketa jasotzeko hautagai izan daitekeen edo ez.

Mailegu hauek tokiko agintariak, sektore publikoko enpresek edo gobernuarekin lotutako beste erakunde batzuek jaso ditzakete.

Laguntza jasotzen duten inbertsioei dagokienez, eta aitortuta zer nolako garrantzia duten osasun-sistemetan, ikerketan eta osasun arloko prestakuntzan berrikuntzari lotuta egiten diren inbertsioek, IEEFk honako arlo hauetako inbertsio-proiektuak babesten ditu batez ere:

- Osasun arloko ikerketa.
- Produktu, zerbitzu eta entregatzeko irtenbide berritzaileak (enpresa txikiak eta ertainak, kapitalizazio txikiko eta ertaineko sozietateak eta enpresa hasiberriak).
- Osasun arloko azpiegituren eredu berriak, batez ere lehen mailako arreta integraturako.
- Teknologia berriak eta osasungintza elektronikoa.
- Osasun arloko hezkuntza eta prestakuntza.

EFSIk ematen dituen maileguak bolumen handikoak izaten dira. Zehazki, EFSIri aurkeztutako inbertsioen zenbatekoak, 200 milioi eurokoa izan behar du gutxienez eta aipatutako inbertsioen % 50eko finantzaketara irits daiteke.

EFSIk babesa emateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte proiektuek:

- ekonomikoki bideragarriak izan behar dute Batasunaren arauen arabera eginiko kostuen eta etekinen analisi baten arabera eta aintzat hartu behar dira bazkide pribatu eta publikoen eskutik lor daitezkeen babesak eta kofinantzaketa;
- Batasunaren politikekin koherenteak izan behar dute eta hortaz, kontuan izan behar dituzte helburu hauek ere: hazkunde inteligente, jasangarri eta integratzailea, kalitatezko enplegua sortzea eta ekonomia, gizarte eta lurralde mailako kohesioa;
- gehigarritasuna ekarri behar dute;
- ahal denean, sektore pribatuko kapitalaren mobilizazioa maximizatu behar dute eta
- teknikoki bideragarriak izan behar dute.

[\(Informazio gehiago\)](#)

Berrikuntzarako Lankidetzak Europan (European Innovation Partnerships, EIP, ingelesez)

Europa 2020 Estrategian jasota dago Europan berrikuntzarako elkarteak abian jartzeko aukera (European Innovation Partnerships, EIP) «Batasuna berrikuntzaren alde» ekimen enblematikoaren baitan.

Berrikuntzako Lankidetzak Europan delakoaren helburua gizarteari onura ekartzeaz gain, inplikaturako sektoreen eta merkatuen modernizazio azkarra ekartzeko ahalmena duten erronka handiei erantzutea da. EIP horiekin, ikerketa eta berrikuntza integratzeko modu berri bat eskaini nahi da, hala, jada identifikatuta dauden eta emaitza neurgariko erronkei erantzuteko.

Elkartze horietan ikerketaren eta berrikuntzaren balio-kate osoa sartzen da. Ez da tresna berri bat, baizik eragile guztiak eta maila guztiak (Europar Batasuna, nazioak eta eskualdeak) hobeto uztartzeko eta koordinatzeko tresna baizik.

6 EIP daude gaur egun eratuta eta horien artean dago Zahartza Aktibo eta Osasuntsuari buruzkoa (European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing, EIP on AHA)

[\(Informazio gehiago\)](#)

Programazio Bateratuko Ekimenak (JPIak)

Programazio Bateratuko Ekimenen (JPIak) helburua ikerketa finantzatzeko, estatu kideak koordinatzea lortzea da, bai gaien ikuspegitik, bai ikuspegi ekonomikotik, ikerketarako agenda komunak garatuz, estatu batek bakarrik gainditu ezin dituen erronka sozialak jorratzeko.

Interesa duten estatu kideek bakarrik hartzen dute parte JPIetan eta, beraz, borondatezkoa da parte-hartzea.

Honako JPI hauek daude, gaur egun, eratuta:

- [Alzheimerra eta beste gaixotsun neurodegeneratibo batzuk \(JPND\)](#)
- [Nekazaritza, elikagaien segurtasuna eta klima-aldaketa \(FACCE\)](#)
- [Dieta osasungarria bizimodu osasungarria izateko \(JPI HDHL\)](#)
- [Ondare kulturala eta klima-aldaketa; erronka berria Europarentzat](#)
- [Europa hiritarra - erronka hiritar globalak, irtenbideak elkarrekin Europan](#)
- [Klimari buruzko ezagutza konektatu Europarentzat \(CliK'EU\)](#)
- [Urte gehiago, bizi hobeketa-aldaketa demografikoaren potentziala eta erronkak](#)
- [Mikrobioen aurkako erresistentzia - mikrobioen erronka, giza osasunarentzako gero eta mehatxu handiagoa](#)
- [Urak mundu aldakor honetan dituen erronkak](#)
- [Itsaso eta ozeano osasuntsuak eta produktiboak](#)

[\(Informazio gehiago\)](#)

FINANTZAKETARAKO TRESNAK, GAIKA

Gizarte-ekintza, migrazioa eta integrazioa

Gizarte-ekintzaren arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Enplegurako eta Berrikuntza Sozialerako Europako Programa (EaSI) 2014-2020.**
- **Europako Gizarte Funtsa (EGIF), 2014-2020.**
- **Gazteen Enpleguari buruzko ekimena. Gazteentzako Berme Funtsa, 2014-2020.**
- **Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa (GEEF), 2014-2020.**
- **Egoera Zailenean dauden Pertsonen Laguntzeko Funtsa, 2014-2020.**
- **HORIZON 2020 programa (2014-2020).**
- **Giza eskubideak eta Herritarrak programa, 2014-2020**
- **Asilo, Migrazio eta Integrazioarako Funtsa, 2014-2020**

Berrikuntza eta lehiakortasuna enpresetan

Enpresei laguntzearen arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **HORIZON 2020 programa (2014-2020).**
- **Enpresen Lehiakortasunerako eta Enpresa Txiki eta Ertaintzako Programa (COSME Programa, 2014-2020)**
- **ERASMUS+. Hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari laguntzeko programa, 2014-2020**
- **CREATIVE EUROPE programa, 2014-2020.**

Kultura, gazteria eta kirolak

Kulturaren, gazteriaren eta kirolen arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Enplegurako eta Berrikuntza Sozialerako Europako Programa (EaSI) 2014-2020.**
- **Europako Gizarte Funtza (EGIF), 2014-2020.**
- **Gazteen Enpleguari buruzko ekimena. Gazteentzako Berme Funtza, 2014-2020.**
- **Europa Herritarrentzat Programa, 2014-2020**
- **ERASMUS+. Hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari laguntzeko programa, 2014-2020**
- **CREATIVE EUROPE programa, 2014-2020.**

Garraioa eta mugigarritasuna

Hiri-garapenaren eta garraioen, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **EUROPA LOTZEA mekanismoa, 2014-2020**
- **Lurraldeen arteko Hiri Lankidetzarako Programa Operatiboa: URBACT III, 2014-2020**
- **HORIZON 2020 programa (2014-2020)**
- **Eskualde Garapeneko Europako Funtza (EGEF), 2014-2020.**
- **EGEF, Lurraldeen arteko Lankidetzza, 2014-2020**

Enplegua, prestakuntza eta hezkuntza

Enpleguaren, prestakuntzaren eta hezkuntzaren arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Enplegurako eta Berrikuntza Sozialerako Europako Programa (EaSI) 2014-2020.**
- **Europako Gizarte Funtza (EGIF), 2014-2020.**
- **Gazteen Enpleguari buruzko ekimena. Gazteentzako Berme Funtza, 2014-2020.**
- **Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtza (GEEF), 2014-2020.**
- **Lurraldeen arteko Hiri Lankidetzarako Programa Operatiboa: URBACT III, 2014-2020**
- **Enpresen Lehiakortasunerako eta Enpresa Txiki eta Ertaintzako Programa (COSME Programa, 2014-2020)**
- **Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtza (FEMP), 2014-2020**
- **ERASMUS+. Hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolari laguntzeko programa, 2014-2020**

Energia eta ingurumena.

Energiaren eta ingurumenaren arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Europa Lotzea Mekanismoa, 2014-2020**
- **URBACT III programa, 2014-2020**
- **LIFE programa, 2014-2020**
- **Batasuneko Babes Zibilerako Mekanismoa, 2014-2020**
- **Horizon 2020 programa**
- **EGEF 2014-2020**
- **EGEF, Lurraldeen arteko Lankidetzeta, 2014-2020**

I+G+b

I+G+b arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **URBACT III programa, 2014-2020**
- **Horizon 2020 programa**
- **EGEF 2014-2020**
- **EGEF, Lurraldeen arteko Lankidetzak, 2014-2020**

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Horizon 2020 programa**
- **EGEF 2014-2020**
- **EGEF, Lurraldeen arteko Lankidetzak, 2014-2020**

Nekazaritza eta arrantza

Nekazaritzaren eta arrantzaren arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Horizon 2020 programa**
- **Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF), 2014-2020**
- **Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsa (FEMP), 2014-2020**

Lankidetza hirugarren herrialdeekin

Hirugarren herrialdeekin lankidetzan aritzearen arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Asilo, Migrazio eta Integrazioarako Funtza, 2014-2020**
- **Demokrazia eta Giza Eskubideetarako Finantza Tresna (DGEFT), 2014-2020**
- **Garapenerako Lankidetza Finantzatzeko Tresna, 2014-2020**
- **Auzo-politikarako Europako Tresna, 2014-2020**

Osasun publikoa eta kontsumoa

Osasun publikoaren eta kontsumoaren arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Horizon 2020 programa**
- **Osasun Programa, 2014-2020**
- **Kontsumitzaileen Programa, 2014-2020**

Justizia eta barneko gaiak

Justiziaren eta barneko gaien arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Eskubideak, Berdintasuna eta Herritarrak programa, 2014-2020**
- **Justizia Programa, 2014-2020**
- **Asilo, Migrazio eta Integrazioarako Funtsa, 2014-2020**

Eskualde-politika

Eskualde-politikaren arloan, hemen aipatuko ditugun tresna hauek ditugu finantzaketarako:

- **Enplegurako eta Berrikuntza Sozialerako Europako Programa (EaSI) 2014-2020.**
- **Europako Gizarte Funtza (EGIF), 2014-2020.**
- **Gazteen Enpleguari buruzko ekimena. Gazteentzako Berme Funtza, 2014-2020.**
- **Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtza (GEEF), 2014-2020.**
- **Egoera Zailenean dauden Pertsonen Laguntzeko Funtza, 2014-2020.**
- **Lurraldeen arteko Hiri Lankidetzarako Programa Operatiboa: URBACT III, 2014-2020**
- **Europa Herritarrentzat Programa, 2014-2020**
- **Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF), 2014-2020.**
- **EGEF, Lurraldeen arteko Lankidetzak, 2014-2020**
- **Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF), 2014-2020**
- **Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtza (FEMP), 2014-2020**

BIBLIOGRAFIA

- EBren finantzaketari buruzko web-ataria
https://europa.eu/european-union/about-eu/funding-grants_es
- EBren aurrekontuei buruzko web-ataria
http://ec.europa.eu/budget/index_en.cfm
- Europar Batasunaren finantzaketari buruzko gida
<https://publications.europa.eu/es/publication-detail/-/publication/7d72330a-7020-11e7-b2f2-01aa75ed71a1/language-es>
- EBren finantzaketari buruzko gida hasiberrientzat
http://ec.europa.eu/budget/library/biblio/publications/beginnersguide/KV3111332E_SC_002web.pdf
- Europako Egiturazko Funtzen eta Inbertsiorako Funtzen eta EBrekinlotutako beste tresna batzuen onuradunentzako jarraibideak
http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/guides/synergy/synergies_beneficiaries_es.pdf
- Finantzaketa eskuratzeko ataria (Regio Zuzendaritza Nagusia)
http://ec.europa.eu/regional_policy/index.cfm/es/funding/accessing-funds/